

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko urriaren 19a • II. urtea • 38. zenbakia • Doa



ANDER GILLEGI /8-9

“Hamasei urterekin argi nuen abadea izan nahi nuela”



Goienka2a

Aloñako gurutzeak
100 urte bete zituen
joan zen zapatuan

Zure herriko
aldikaria barruan!

Autopistaren lehen zatia datorren urtean zabaldu gura dute

Eibar-Gasteiz autopistaren lehen zatia, hau da, Bergara eta Eibar lotuko dituen, datorren urte amaieran zabalduko dela ziurtatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Etxegarateko autobidea ere orduko zabaldu gura dute.

Gipuzkoako Diputazioko errepide departamenduak egindako txosten batean jasotzen denez, gure lurraldean egiten ari diren errepideen lanak bide one-

tik doaz eta aurrez ikusitako epeak betetzen dihardute. Honenbestez, Eibar-Gasteiz autopistaren Bergara eta Elorregi arteko zatia 2004. urteko maiatzerako amaitzea espero dute eta Elorregitik Arrasatera artekoa, berriz, urte bereko abuzturako. Arrasate eta Gasteiz arteko zatia zabalteko epea ez du ziurtatzen txostenak, zati honetan lan zailagoak eskatzen ditu-eta.

DEBAGOIENKO UNIBERTSITATEETAN IKASTEN

Geroago eta ikasle gehiago etortzen da kanpotik gurera

Geroago eta gehiago dira beste toki batzuetatik Debagoieneko unibertsitateetara ikastera dato-

zenak. Askok, gainera, gurean pasatzen dute astea, errentan hartutako etxeren batean edo ikas-

leen egoitzan. Mondragon Unibertsitatea eta Bergarako UNED dira gure unibertsitateak. /2-3

DEBAGOIENA

Bideokonferentzien gaineko jardunaldia antolatu du Dankak

Arrasateko Danka Multimedia enpresak telekomunikazio alorrean dituen eskaintza berriak erakutsi zituen eguaztenean. Espainiako eta Europako 12 hiriren artean konexioa egin zuen. Dankak, bideokonferentzien gaineko jardunaldiak egin ditu Miñanon, Arabako parke teknologikoan. Aurrerapen teknologikoei buruz jardun dute. /5

ARETXABAETA

Urkuluko hegaztien gaineko liburua Gabonetarako

Duela urtebete eta erdi inguru, Ubarroi natur taldeak Urkuluko ur-hegaztien gainean erakusketa egin zuen Udaletxean. Mikel Arroiabe marrazkilaria eta Oskar Maior arrasatearra bost urtez aritu ziren erakusketa egin ahal izateko ikerkuntza lanetan. Orain, erakusketa hartako marrazki eta informazio guztia aprobetxatuz, liburua kaleratu gura dute. /5



UBANE MADERA

Lan istripua Arrasaten

Eguaztenean arratsaldeko laurak aldera lan istripua izan zen Arrasateko Araba Etorbidean. Inguuru horretan ur zikinendako kolektorea egiten ari dira. Lanean ziharduela, zazpi metroko hondoa duen zulora erori zen 45 urteko J.G.S langile errenteriarra. Zulotik ateratzeko suhiltzaileen laguntza behar izan zuten. Debagoieneko Eskualde Ospitalera eroan zuten aurpegiari eta gorputzeko beste hainbat ataletan zauriak zituela.

EGITARAUA
Ikastaroa
2001/2002

Forcem eta Hobetuz eko ikastaroak %100 subeniztionaturak aktiboan dauden lagileentzako

- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika
- Internet
- Microsoft project
- Autokad
- Programazio informatika
- Ingles multimedia
- Gestio kontablea
- Giza errekurtsioen administraketa
- Zerga gestioa
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- Musika informatika (MIDI Sistema)
- Enpresariales eta ingenieritza
- Laguntza klaseak

Larunbat goizetan ere

AKADEMIA
BASTIDA

Araba Etorbidea, 3 - 1ª • 20500 Arrasate-Mondragón
Tel.: 943 79 35 33 • Fax: 943 79 06 28 • E-mail: bastida@bastida.es

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXA

Unibertsitateera

Geroago eta gazte gehiago datoz kanpotik Debagoienera, goi mailako ikasketak egitera

AITZIBER AZKONDO

Debagoienak igarri egin du azken urteetan, ibarreko unibertsitateek eskaintzen dituzten ikasketak direla-eta, hainbat ikasle kanpotik gerturatu izana. Ondorioz, ikasle horiek ibarrean egin behar izaten dute asteko bizitza. Gehienek pisua alokatu edo egoitza aukeratzen dute astea igarotzeko.

UNIBERTSITATEAK

Mondragon Unibertsitatea eta Bergarako UNED ditugu ibarrean goi mailako ikasketak eskaintzen dituzten zentroak gaur egun. Hauek dira, beraz, kanpoko ikasleak erakartzen dituztenak.

Mondragon Unibertsitateari dagokionez, 1997. urtean sortu zen. Unibertsitatea osatzen duten hiru fakultateak elkarrekin eta unibertsitatea eratu zen duela lau urte. Arrasaten eta Ordizian kokatzen den Goi Eskola Politeknikoak, Oñatiko Enpresa Zientzietako Fakultateak (ETEO) eta Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateak osatzen dute Mondragon Unibertsitatea.

Horien artean, Goi Eskola Politeknikoak jasotzen ditu ikasle gehien. Une honetan, 2.000 ikasle inguru ditu; Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateak, 800 inguru; eta Enpresa Zientzietako Fakultateak, berriz, 650 ikasle inguru.

IKASTURTE HASIERA

Egun gutxi barru, hilabete beteko da Mondragon Unibertsitateak ikasturte berriari ekin ziola.

Ikasturte hasiera geroztik, besteak beste, hezkuntza sistema berria eta Madrilgo Gobernuak egin nahi duen unibertsitate lege berria izan dira hizpide unibertsitateko goi karguen artean. Era berean, MUNIk etorkizunerako dituen erronken artean, Goierriko campus berriaren sorrera azpimarratzen dute MUNiko buruek. Bestalde, unibertsitate gero eta euskaldunagoa eta zortzi urte barru 4.000 edo 4.500 ikasle izatea dira unibertsitateak finkatutako helburu nagusienak.

Egungo errektore Jabier Rete-gik urtarrilean kargua laga egingo du eta Inaxio Oliveriri utziko dio lekua.



ESKOLARA

Duela lau aste hasi ziren Mondragon Unibertsitatean eskolak. Ikasten ari direnaren arabera, goizeko edo arratsaldeko ordutegia izaten dute. Goizean 07:45ean hasi eta 13:00ak bitartean, bost orduko eskola eta ordu erdiko atsedena izaten dute. Arratsaldean, berriz, 13:15etik 18:00ak bitarteko eskola saioa izaten da.

Egun osoan, unibertsitateak aukerako eskolak eskaintzen ditu. Horrela, ikasleek beste hainbat ikasgai aurrera eramateko bidea izaten dute eskola orduetatik kanpo.



EROSKETAK

Mikelek, Iñigok eta Aitorrek hiru urte darabizate Arrasaten Ingeniaritza ikasten. Bik goizez eta besteak arratsaldez ikasten badute ere, astelehenetan, aste-ko erosketak egiteko biltzen dira. Gainera, ondo jaten dutenetakoak direla esan digute. Horrela, arratsaldez ikasten duenak bazkaria gertatu eta goiz partean ari direnek garbiketa lanak egin behar izaten dituzte. Ordizia eta Zestoakoak dira, eta autoz etortzen dira domeka gauean, garraio publikoak erabiliz oso astuna egiten zaie-eta Goierri eta Arrasate arteko bidea.



ARGAZIAK: AITZIBER AZKONDO

ETXEAN

Xabier eta Aitor, Ordiziako eta Azkoitiko 20 urteko gazteak, Ingeniaritzako 3. eta 2. ikasturteak egiten ari dira, hurrenez hurren, Mondragon Unibertsitatean. Arrasaten bizi dira. Lehendabiziko urteak Biteri egoitzan eman zituzten eta aurretik, beste hiru ikaskiderekin batera, etxebizitza alokatzea erabaki zuten, diotenez, askatasun handiagoa ematen baitu pisuan egoiteak, nahiz eta lan handiagoa eskatzen duen. Hala ere, etxeko lan guztiak banatu egiten dituzte inolako arazorik egon ez dadin. Etxebizitza alokatzeagatik 125.000 pezeta ordaintzen dute.



ASTEROKO BIDAIA

Badira egunero autobusez etortzen diren ikasleak ere, ibar ondoko herrietatik gerturatzen direnak, batez ere. Elorrio, Eibar edo Elgoibar moduko herrietatik etortzen direnek autobusez egiten dute eskola eta etxe arteko bidaia. Gainerakoak domeka gauean eta astelehen goizean autobusez edo autoz etortzen dira aste osoko maleta bizkarrarekin dutela. Azken horiek etxebizitza alokatu edo Biteri egoitza aukeratzen dute astea igarotzeko. Iaz, MUNIn ikasten ibili zirenen artean, %65 Debagoienetik kanpokoak ziren.

JON BOYRA / MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IKASLE KONTSEILUKO IDAZKARIA

“Idazkari postuak egun erdiko lan-jarduna eskatzen du”

Jon Boyra zarauztarrak 20 urte ditu. Ingeniaritzan Elektronikako hirugarren maila egiten dihardu eta Ikasle Kontseiluko idazkari lanetan dabil urtebete ezker.

Zertan datza Ikasle Kontseilua?

Ikasle Kontseilua hilean behin biltzen da. Zuzendari nagusiak, idazkariak, nik neuk eta eskola guztietako delegatu eta azpidelegatuek osatzen dute. Ia 100 lagun inguru izango gara Ikasle Kontseiluan. Hala ere, oso gaitza da guztiok bat egitea. Ikastaro hasieran, komenigarria izaten da jendea batzarretara joatea, zer-nolako ekintzak antolatu behar diren jakin eta horren berri zabaltzeko. Bestalde, ikasturte hasieran izan daitezkeen kezka gehiago izan daitezkeenez, komeni da batzarrean izatea. Eskolekin zerikusia duten gaiak, azterketak, esaterako, eta eskolatik kanpo antolatzen diren ekintzen inguruan aritzen gara, batik bat. Gaiak jorratu eta sor daitezkeen arazoei irtenbidea ematen saiatzen gara.

Eta idazkariak zer-nolako lana egiten du?

Guztia koordinatzeaz ardurtzen naiz. Kontseiluko batzarrak,



esaterako, hilean behin egiten badira ere, delegatu eta azpidelegatu guztiak jakinaren gainean jarri behar dira. Oharrak bidali behar dira eta batzarretan jorratu beharreko gaiak ere antolatu egin behar dira. Bulego propioa daukat. Kontseiluko idazkaria bekaduna da. Lau orduko lanordua bete behar du eta, bereziki, ikasleei begira egin behar du lan. Nik arratsaldean ikasten dut eta goizean, kontseiluko idazkari lanak egiten ditut.

Nolatan izendatu zintuzten idazkari?

Ikasle ugari egiten du lan egun erdiz. Iaz, nire burua aurkeztu nuen eta baiezkoa eman

zidaten. Hala ere, aurkezten diren artean bozketa egiten da. Eskolan berria ez izatea oso kontuan hartzen dute. Bertako mugimendua ezagutu beharra dago eta, ondorioz, bigarren edo hirugarren ikasturtean jardun behar duzu idazkari izateko. Ikastetxe nagusiko ikaslea izatea ere garrantzitsua da. Bulegoa han bertan dago eta jendearekin harremana izateko hurbil egon behar da. Aurreko idazkaria ezagutzen nuen eta hark ere animatu egin ninduen erantzukizuna hartzera. Harekin bi hilabetez lan egin behar izan nuen, batez ere, dinamika ezagutzeko.

Kontaiguztu, ikasketaz kanpo antolatzen diren ekimenak nolakoak dira?

Proposamen asko egon daitezke, baina badira urtero errepikatzen direnak. San Pankrazio eguna eta sagardotegira irteera, esaterako, urtero egiten dira. Mendi irteeraren bat, zinema eta pandero ikastaroak, hitzaldiak...

Ekintza horietarako, unibertsitateak aurrekontuaren erdia eta ikasleek beste erdia jartzen dute. Ikasle bakoitzak urteko 1.000 pezeta inguru jarri behar izaten ditu ekitaldi horietan parte hartu gura izanez gero.

UNED, ikasketak etxetik egiteko aukera

Lanean aritu eta ikasketa berriak egitea nahi dutenentzako, UNEDek eskaintzen duen aukera aproposa izan daiteke. Batez ere, egubakoitz arratsaldetan eta zapatu goizetan ematen dira eskolak Bergarako UNEDen.

Bergarako UNEDeko ikasleek 60 irakaslearen laguntza dute, ikasketen inguruko gaiak jorratzeko eta zalantzak argitzeko. Etxetik egiten diren ikasketak dira, batez ere, eta horretarako, ikasleek telefonoa, internet, posta elektronikoa eta faxa erabiltzen dituzte, besteak beste.

Orain arte, Bergarako UNEDek 16 lizentziatura eta hiru ingeniaritza titulu eskaini arren, aurten, Hizkuntza Institutua jarri du abian. Euskara, ingelesa, galiziera, alemana eta frantsesa ikasteko aukera emango du institutuak. Horrez gain, beste hiru lizentziatura berri (Ingeles Filologia, Pedagogia eta

Psikopedagogia) eta diplomatura bat (Giza Hezkuntza) jasoko ditu aurten unibertsitateak, beste hainbat ikastaroren artean. Bestalde, interneten bidez egingo diren ikasketak ere izango dira. Gaur egun, 1.500 ikasle inguru ari dira UNEDen. %85,5 gipuzkoarrak, %12,2 Bizkaitik gerturatzen direnak eta %0,8 Arabatik.

Gipuzkoan oinarrituta, Donostialdeko ikasleek osatzen dute kopuru handiena. Gero, Debagoieneko ikasleek, eta jarraian, Goierriatik eta Debabarrenetik datozenak.

Bizkaiaren kasuan, Durangaldetik etortzen dira gehien, baita Markina aldetik ere. Arabako ikasleak Gasteiz ingurukoak dira, batez ere. Hala ere, badira Euskal Herriatik kanpo bizi eta Bergarako UNEDen ikasketak egiten dihardutenak. Ikasle kopuruaren gehiengoa emakumeek osatzen dute.

MUNiko ikasleen gainean hainbat datu

Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateetako ikasleen kopurua adierazten dizuegu beheko taulan. OHARRA: Datu hauek behin-behinekoak dira. Matrikulazio epea amaitu berri da eta oraindik azken datuak zenbatzen ari dira. Hala ere, ondorengo datuak azken datuetatik oso gertu daudela aipatu behar dugu.

Fakultatea	Ikasle Kopurua	Berriak
Goi Eskola Politeknikoa	1.954	593
Enpresa Zientzien Fakultatea	648	146
HUHEZI	754	257
Hiru fakultateetan graduatu ondoko titulazioak	350	-

Guztira, 3.706 ikasle ditu Mondragon Unibertsitateak. Iaz, 3.400 inguru izan ziren; ondorioz, %8,8ko hazkundera izan du ikasle kopuruari dagokionez.

Bailaran, labur

AZPIEGITURAK

Ezker Batua Jaurlaritzan egon arren, LHT egingo dela esan du Alvaro Amann-ek

Garraio eta Herrilan Sailburu Alvaro Amann-ek esan duenez, Lastertasun Handiko Trenaren proiektua ez da atzeratuko eta egin egingo da, nahiz eta Ezker Batua Jaurlaritzako kide izan. Hala ere, Euskal Autonomi Erkidegoko hiru hiriburuak lotuko dituen trenbide sare berriak ingurumenari egingo liokeen kalteak ahalik eta txikiak izateko ahalginak egingo dituela eta egitasmoa berraztertuko duela adierazi du Amann-ek. Ezker Batua LHTren aurka agertu da behin baino gehiagotan, eta EBko Koordinatzaile Orokor eta Etxebizitza sailburu Javier Madrazok Euskal Y-aren proiektua geldiarazi duela esan du. Amann-ek, ordea, gezurtatu egin du Madrazok esandakoa. Bestalde, legealdi honetan, trenbideak eta itsasoko garraioa bultzatuko direla azpimarratu du Garraio eta Herrilan Sailburuak. Une honetan egiten ari diren errepideez gain, (Eibar-Gasteiz, Beasain-Durango...) beste berririk ez dela egingo esan du Amann-ek. Horrez gain, hainbat ibarretan, tartean Deba arroan, tranbiak bultzatuko direla adierazi du. /ENEKO AZKARATE

GARRAIOA

Zapatu guetan autobus zerbitzu berezia eskaintzen hasi dira

Gipuzkoako Foru Aldundiak zapatu guetan autobus zerbitzua eskaintzeko plana abiarazi berri du. Debagoienean, bi linea izango dira: bata, Eibarretik Eskoriatzara eta Eskoriatzatik Eibarrerako ibilbideak egingo dituen. Bestea, Zumarraga-Oñati-Arrasate eta alderantzizkoa egingo dituen. Lehenengoa gauerditik goizaldeko seiak arte ibiliko da. Autobusak ordu eta erdiro aterako dira, bai Eibartik eta baita Eskoriatzatik ere. Bestalde, Zumarraga-Oñati-Arrasate honako orduetan aterako da Zumarragatik: gauerdian, 02:30etan eta 05:00etan. Arrasate-Oñati-Zumarraga, berriz, 01:15ean, 03:45ean eta 06:15ean. /E.A.

ZABORRA

Zaborra lagatzeko edukiontzia ipiniko dira Debagoieneko herrietan

Debagoieneko Mankomunitateak zabor ontziak jarriko ditu datorren urte hasieran. Gaur egun kalean uzten ditugu etxeko zabor poltsak eta, ondoren, kamioiak jasotzen ditu. Datorren urtetik aurrera, ostera, zabor poltsak uzteko edukiontzia ipiniko dituzte herri gehienetan. Horrenbestez, edozein egunetan jaitsi ahal izango ditugu zabor poltsak etxetik, ontzietan lagatzeko. Berde koloreko metalezko ontziak jarriko dituzte. Populazioaren eta beharren arabera zehaztuko da herri bakoitzean zenbat edukiontzia jarri. Mankomunitateak zabor bilketa zerbitzua FCC enpresari adjudikatu dio hurrengo zortzi urteetarako. Gaur egun zabor bilketa lanetan dabilzan 17 langileak, Mankomunitatearen soldatapekoak direnak, FCC enpresako langile izango dira etorkizunean. Zerbitzua abiatzeko hainbat inbertsio egingo dira, kamioi berriak erosiko dira... /E.A.

KALE BILKURA

Eskualde mailako manifestazioa Oñatin zapatuan 'Alde hemendik' lelopean

Utzi Leintz pakean, alde hemendik lelopean, manifestaziorako deia egin dute hainbat taldek zaturako. Manifestazioa Oñatin izango da, Oñati da-eta gure ibarrean Guardia Zibilaren kuartela dagoen herri bakarra. Manifestazioaz gain, beste hainbat ekitaldi izango dira: 11:00etan, Foruen plazan harrera egingo zaie eskualdeko hainbat alkateri, eta idatzi bat irakurriko dute; gero, dantzariak eta bertsolariak izango dira; jarraian, futbol partidua eta horren ostean, triki-poteoa; 14:00etan, Zubikoa kiroldegian herri bazkaria; 19:00etan, manifestazioa eta 21:00etan rock kontzertuak Arrano eta Pako tabernetan. Arranon, Aser eta Segabathor-ek joko dute. Pakon, berriz, Kañeria 13 eta Arkada Sozial-ek. /E.A.

BERGARA

ARKEOLOGIA

Osintxuko indusketetan ez dute espero zuten ermita aurkitu

Ermitaren arrastorik ez aurkitu arren, orain badakite non dagoen

MONIKA BELASTEGI

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak indusketa lanetan aritu dira Osintxuko tailer batean. Helburua, XVI. mendeko ermita baten arrastoak aurkitzea.

San Emeterio eta San Zeledonio ermitaren arrastoak, hain zuzen ere. Duela hilabete batzuk, Bergarako udal museologoak eta Diputazioko teknikari batek aipatutako ermitarenak izan zitezkeen horma zati bat eta hormabular bat aurkitu zituzten Osintxuko tailer zahar baten azpian.

Ermitari buruzko aipamen dokumentalek, gainera, tailer zahar horretan, edo oso hurbil, behintzat, kokatzen zuten San Emeterio eta San Zeledonio ermita. Gauzak horrela, Bergarako Udalak indusketa lanak egitea erabaki zuten.

BI HORMA AGERRARAZI DITUZTE

Egunotan, Aranzadi Zientzia Elkarteko hainbat lagun aritu dira indusketa arkeologikoak egiten.

Eta aztarna haiek ermitari ez dagozkiola frogatu dute. Hala ere,



MONIKA BELASTEGI

Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoak indusketa lanetan.

aztarnak bilatzeko egindako zundaketak direla medio, tailerrenak ez diren bi horma aurkitu dituzte. Hormetako baten kasuan, 15 metro utzi dituzte bistan, eta errekari eusteko eraiki zutela uste dute. Hormaren barruko aldean, Aro Modernoko (XVI-XVII. mendeak) zeramika zatiak, pipa zatiak eta txanpon bat azaldu dira.

Bigarren hormari dagokionez, erretako etxe bati dagokio, "La casa de la Vega"ri. Horrek San Emeterio eta San Zeledonio ermita non dagoen jakiteko balio izan die Aranzadikoei: bilatzen jardun dutena baino pixka bat hegosalderago. Izan ere, ermitaren dokumentazioan dio 1863an etxe bat erreta zegoela ermitaren iparraldean.

OÑATI

TOPALEKUAREN TOKI ALDAKETA

Gaztelekuko topalekua Olakua dorretxean jarri nahi dute

Kokapen hau behin-behinekora izango litzateke, izan ere, Bidebarrietan jarriko dute topalekua

AINTZANE IRIZAR

Egueneko Gobernu batzordean onartzekoak ziren topalekua Olakuako dorretxean jartzea. Han egongo da, Bidebarrietako lokala egokitu bitartean.

Uztail hasieran itxi zuten gaztelekua, eta han zeuden bulegoak eta informatika gela tokiz aldatu zituzten; orduetik hona, lehen bake epaitegia zegoen tokian, Kalebarrian, daude zerbitzuok.

Gazteen topalekua, baina, gaztelekuan bertan dago. Beste lokalik topatu ez dutenez, hantxe daude oraindik, baina sarrerako zatia bakarririk dute gazteek egon ahal izateko.

Dena dela, Udaleko arduradunen esanetan, egoera berehala konponduko dute. Gobernu batzordea eguenean onartzekoak zen topalekua Olakuako dorretxean jartzea. Kokapen hori, hala ere, behin-behinekora izango litzateke; izan ere, Bidebarrietako etxe-

bizitza-multzo sozialen beheko solairuan erosi du lokala Udalak, topalekua hantxe jartzeko asmoarekin. Bidebarrietako lokala egokitu bitartean egongo da gazteen topalekua Olakuako dorretxean.

Kontzejupetik aldizkariaren erredakzioa eta Oñati irratia-rena ere hantxe daude, hirugarren solairuan. Topalekua, berriz, beheko solairuan egongo litzateke.

BIDEBARRIETAKO LOKALA EGOKITZEN

Etxebizitza sozialen eraikinean, beheko solairua erosi zion Oñatiko Udalak Eusko Jaurlaritzari.

Euren asmoa zen hantxe jartzea topalekua, gazteleku berria egin bitartean. Baina lokal hori egokitu beharra dago: argindarra eta komunak jarri, lurzorua eta hormak konpondu eta abar. Gauza asko egin behar dira lokal horretan. Hori guztia egiteko, proiektua egiten dihardu Udaleko aparejadoreak.

Zertzelada

Gazteleku berria egin bitartean, Bidebarrietako lokalean jarri nahi dute topalekua; lokal hori, baina, egokitu beharrean dago. Ordura arte, Olakuako dorretxean jarriko dute.

ELGETA

GOBERNU BATZORDEA

EAJ/EAk Gobernu batzordetik kanpo utzi du EH

Lehenengo aldiz, alderdi bakarra gobernuan

OXEL EROSTARBE

Uztailean airean utzi zuen EAJ/EAk Gobernu batzordean EHrekin jarraituko zuen edo ez. Aste honetan jakinarazi diete EHko zinegotzietan ez dutela Gobernu batzordean batera jarraituko.

Aste honetan jakinarazi die EAJ/EAk EHko zinegotzietan Gobernu batzordetik kanpo geratuko direla. Udatik datorren kontua da hau. Uztailean onartutako aurrekontuei ezetza eman zien

EHk. Gobernu batzordean batera egonda, aurrekontuei ezetza ematea ulertezina zela esan zuen EAJ/EAk, eta EH kanporatu zuen. Ez zirelako modu parte hartzailean egin, ez zelako eurekin adostasunera heldu eta ez zirelako euren batzordeetako proposamenak kontuan hartu eman zien EHk ezetza

Zertzelada

Lehenengo aldiz da talde politiko bat Gobernu batzordetik kanpo geratzen dena. EH pentsatzen dabil Kultura eta Baserritarren batzordeekin jarraituko duen.

aurrekontuei. Gobernu batzordetik kanporatuta, bertan jarraitzeko nahiaz, proposamena egin zion EAJ/EArri uztaile bukaeran. EAJ/EAk atzeratu egin zuen erabakia. Gobernuan parte duen talde batek aurrekontuen aurka bozkatzeari ulertezina dela diote, eta kanporatu egin du EH.

EH BERE BATZORDEEKIN JARRAITU EDO EZ PENSATZEN ARI DA

Bere eskuetan zeuden batzordeetan parte hartzen zutenekin hitz egiteko da EH, aurrerantzean Gobernu batzordeak itxiak izango dira-eta.

EH Gobernu batzordetik kanpo geratzeak aldaketa batzuk ekarriko ditu Udalean: Izaskun Larrea izango da Gobernu batzordeko kide berria eta Maria Jesus Lete alkateordea. Udalak beste erakundeetan dituen ordezkariak ere EAJ/Earen ardura-geperatu dira.

ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, 'Sutargi' ikuskizuna autobusa jarri dute

AINTZANE IRIZAR

Bergarako eta Antzuolako erretiratu elkarteek, urtero moduan, Hamabostaldi Kulturara antolatu dute bosgarren aldiz. Hamabostaldi horren barruan antolatu dute gaur gaueko ikuskizuna, Aukeran taldearen *Sutargi* ikuskizuna, hain zuzen. Edu Muruamendiaraz dantzari bergararraren taldeak Bergarako Udal Pilotalekuan egingo du emanaldia. Hori dela eta, Antzuolako erretiratuek ere joateko aukera izan dezaten, autobusa antolatu dute gaur, egubakoitza, gauean. 21:00etan irtengo da autobusa Antzuolako plazatik, eta gaueko 22:00etan hasiko da emanaldia. Oraindik badaukazue aukera txartelak erosteko, Martin eta Altzarte okindegietan eta Itzar liburu dendan.

Urriaren 4an hasi zuten egitaraua, eta urriaren 27ra arte hainbat ekitaldi egingo dira. Besteak beste, datorren martitzenean, urriaren 23an, *El reto de la participación* izenburupean hitzaldia egingo du Merce Pérez psikologoak.

ESKORIATZA

IKASTURTE BERRIKO LEHENENGO ZENBAKIA

HUHEZIK 'Jakingarriak' aldizkaria kaleratu du

EAEko ikastetxe guztietan eta Nafarroa eta Iparraldeko ikastoletan banatuko dute

MIRARI ALTUBE

Ikasturte berriko Jakingarriak aldizkariaren lehenengo zenbakia aurkeztu zuten martitzenean, hilak 16, Humanitate Fakultatean, baita Irakur Gida ere.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Dokumentazio Zentroak *Jakingarriak* aldizkaria aurkeztu zuen martitzenean. Aldizkari horren 45. zenbakia da kaleratu berri dena, eta ikasturte honetako lehenengoa. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan eta Nafarroa eta Iparraldeko ikastoletan banatuko dute, guztira 1.200 ale.

Lehenengo zenbakiko gai nagusia ahozko hizkuntzaren transmisioa da, eta horren gainean zazpi artikulua lantzen dira, sei euskaraz eta bat ingelesez.

'IRAKUR GIDA' ERE ARGITARATU DUTE

Bestalde, Haur Liburu Mintegiak *Irakur Gida* argitaratu du. 2000. urtean haur eta gazte literaturan

Jakingarriak aldizkariaren azala.

kaleratu ziren euskarazko liburu onen artean egindako aukeraketak osatzen du gida. Haur Liburu Mintegiak berak baloratu eta sailkatutako liburuak dira, liburu guztiak irakurri eta gero. Guraso, irakasle eta liburuzaingandako benetan aproposa izango da martitzenean aurkeztu zuten *Irakur Gida* hori.

M.A.

ARAMAIO

MERKATARIAK HASERRE

Herriko plazako zenbait merkatarik ez daude konforme aparkatzeko debekuarekin

UBANE MADERA

Uztailean hasi ziren Udalean Bixente Goikoetxea plaza oinezkoendako gune bihurtzeko lehengo urratsak egiten. Herritarrei abisua bidali zien, eta gero, zirkulazio seinalea ipini zuen. Plazatik automobilerik pasatzea eta zamalanak egitea baimenduta dago; baina, hala ere, plazako zenbait merkatarik ez daude batera konforme erabaki horrekin.



UBANE MADERA

Aparkatzea debekatuta dagoela iragartzen duen seinalea ipinita dago.

Hasteko, esaten dute horrelako neurri bat hartu aurretik herritarrei galdetu egin behar zaiela; bestetik, diote aramarioar gehienak herrian daudenean ez dela plazatik gertu aparkatzeko lekurik egoten, eta herriko beste puntan aparkatu behar izaten dutela, horrek ekartzen dizkien eragozpenekin. Eta hirugarrenik, jakinarazi dute Udalak ipinitako seinalea okerra dela, ez duelako plazatik pasatzen uzten.

ARRASATE

BIDEOKONFERENTZIEK JARDUNALDIAK

Bideokonferentzien gaineko jardunaldiak egin ditu Dankak

Asmoa da bideokonferentziak uste baino gertuago daudela erakustea

UBANE MADERA

Bideokonferentziaren onurak erakutsi ditu Dankak Multimedia. Eguaztenean, Espainiako eta Europako 12 hiriren artean konexioa egin zuen.

Arrasateko Dankak Multimedia enpresak telekomunikazio alorrean dituen eskaintza berriak erakutsi zituen eguaztenean, hilak 17. Hain justu, bideokonferentzien gaineko jardunaldiak egin ditu Miñanon, Arabako parke teknologikoan. Izan ere, bideokonferentzien alorrean burubelardi dihardu lanean Dankak Multimedia azkenaldian. Bideokonferentziak egiteko beharrezkoa da azpiegitura teknologikoa jakina, eta teknologia hori eskaintzen du, hain zuzen, Dankak.

URRUNEKO KOMUNIKAZIOA

Teknologia horrekin, bideokonferentziekin, alegia, posible dira honakoak: munduko leku desberdinetan dauden zenbait lagunek une berean batzar bat izatea; etxetik mugitu barik eskolan ikastea; edo enpresa batek pro-



GOIENA TELEBISTA

Munduko leku desberdinetan dagoena etxetik ikusi eta entzuteko aukera ematen dute bideokonferentziak.

duktuak han eta hemen erakustea, jakina, hori ere etxetik mugitu barik. Azken baten, bideokonferentziak aukera ematen du munduko puntu desberdinetan dagoena etxetik ikusi eta entzuteko.

Martxoan hasi zen Dankak teknologia hori erabiltzen, eta eguaztenean egin zuten emaitzen aurkezpena. Bideokonferentziak

ekarriko dituen onurak erakutsi zituzten. Mikel Lizarralde, Dankako sortzaileetako batek, adierazi zuenez, "internet guztiok dakigu existitzen dela, baina bideokonferentzien gainean berba egiten hasiz gero, gauza hauek urrun samar ikusten dira. Guk erakutsi gura izan dugu pentsatzen duguna baino gertuago daudela bideokonferentziak".

LEINTZ GATZAGA

Astelehenetik aurrera, ludoteka zabalik ume guztiendako

MIRARI ALTUBE

Datorren astelehenetik, hilaren 22tik, aurrera, ludoteka zabalik egongo da Leintz Gatzagan. Garro jauregian kokatu dute txoko berria. Hemendik aurrera, herriko ume eta gaztetxoek ez dute aspertzeko aitzakiarik izango. Hiru eta zozti urte bitarteko umeek astelehen, eguazten eta egubakoitzetan izango dute zabalik ludoteka, 17:00etatik 18:30era. Zortzi urtetik gorakoek, berriz, martitzen eta eguaztenean, 17:30etik 19:30era, eta egubakoitzetan, 18:30etik 20:00etara. Hiru urte arteko umeek ere izango dute joateko aukera, nagusi batek lagunduta betiere.

Ludotekako arduraduna Rosa Sánchez da, Aretxabaletan bizi den salamancarra. Lazkao bernetegian euskaraz ikasi ostean, Arizmendi ikastolan dihardu lanean. Egunero jardungo du Leintz Gatzagako ludotekan, eta haren esanetan, ume eta gaztetxoendako ludoteka txoko atsegina izatea nahiko luke. Ipuina eta antzerkia lantzeko asmoa ere badauka.

ARETXABALETA

URKULUKO HEGAZTIEN GAINEAN LIBURUA

Urkuluko uretan dabilzan hegaztien gainean liburua argitaratu gura du Udalak Gabonetarako

Mikel Arroiabe marrazkilariak hogeita hamabost hegaztiren marrazkiekin jantziko du liburua

AMAGOIA LASAGABASTER

Duela urtebete eta erdi inguru, Ubarroi natur taldeak Urkuluko ur-hegaztien gainean erakusketak egin zuen Udaletxean. Mikel Arroiabe marrazkilaria eta Oskar Maior arrasatearra bost urtez aritu ziren erakusketa egin ahal izateko ikerkuntza lanetan.

Orain, erakusketa hartako marrazki eta informazio guztia aprobetxatuz, liburua kaleratu gura dute. Horretarako, Udaleko Ingurumen Sailaren laguntza izango dute.

Udalak Gabonetarako argitaratu gura du Urkuluko hegaztien gaineko liburua. Asmoa da 2.500 ale atera eta Gabonetan

herritarrei opari gisa etxera bidaltzea.

MIKEL ARROIABEREN MARRAZKIAK

Mikel Arroiabe eta Oskar Maior biologoak dira, baina horrez gain, Mikelek marrazkiak egiteko zaletasun handia dauka. Horregatik, liburuan jasotako informazioa biek idatzitakoa

bada ere, marrazkiak Mikelek egin ditu. Denera, 35 hegaztiren gaineko datuak eta marrazkiak jasoko dira liburuan. Eta Urkuluko hegaztien artean izarra den *Murgil Erregea* izeneko txoria ere liburuan izango da. Mikelen esanetan, hura dugu, duda barik, Urkuluko hegazti mota guztien artean politena.

GAZTERIA TEKNIKARIA

Amatasun bajaran dagoen bitartean titularra ordezkatzeko, funtzionario interino bat hartu nahi da. Ordezkapena bost hilabete ingurukoa aurreikusten da.

Baldintzak:

- Euskara: 4. HEren pareko jakintza
- Unibertsitateko erdi mailako titulua

Apuntatzeko epea: urriaren 20tik 29ra bitartean.

Oinarriak udaletxean ikus edo/eta jaso daitezke edo. Udalaren web orrian ere begira daitezke (www. arrasate-mondragon.net).



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila



Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Ibai-arteren bazkide



Zabalik

JUAN LUIS
AZKARATEZibilizazioen
arteko talka

Mendebaldeak mundua menderatu zuen, baina ez bere ideiak, baloreak edo erlijioa hobeak direlako (menderatuen artean, gutxi bereganatu zituzten mendebaldeko baloreak) baizik eta hobeak direlako biolentzia antolatua erabiltzeko orduan. Mendebaldeko jendeak askotan ahaztu egiten du hau; baina mendebaldekoak ez direnek, sekula ez". Aipu hau 'Zibilizazioen arteko talka' ('El choque de civilizaciones y la reconfiguración del orden mundial', Paidós argitaletxea) liburutik ateratu da. Liburua Samuel P. Huntington-ek idatzi zuen 1996an eta ondo azaltzen du egun hauetan munduan gertatzen ari dena eta, are gehiago, hemendik aurrera etorriko dena.

Nahiz eta Bin Laden ez izan, inondik inora, islamdarren ordezkaria eta, are gutxiago, musulmanena, denok sumatu genuen zibilizazioen arteko talka bat Martitzen Beltzeko atentatu krudel hartan. Zibilizazioen arteko talka ikusten da, baita ere, Estatu Batuetako eta mendebaldeko beste herrialdeetako armaden erasoaldi inmoralek eta zinikoetan (hor ditugu airetik botatutako garbantzukajak edo Bushen dolar bateko bileteen bilketak umeen artean, Afganistanera bidaltzeko).

Harvard-eko irakaslearen liburu gomendagarri horretan, Fukuyamaren 'Historiaren Bukaera' izeneko teoria hankaz gora jartzen da. Japoniar-amerikarraren tesia ezaguna da: ideologiak bukatu dira eta mundu homogeneo baterantz goaz. Huntington-ek tesia bestelakoa da: ideologiak desagertzeri doaz, bai, baina ez hainbat zibilizazio osatzen dituzten balore erlijioso eta kulturalak. Krisialdian dagoena Europako eta Iparramerikako kulturak, zibilizazioa eta demografia dira. Mundu musulmanean (eta beste hainbat zibilizazioetan, txinatarra, esaterako) kontrakoa gertatzen ari da, hain justu.

Gutunak

Administrazioak,
batean kale bestean
bale

Gipuzkoako kutsatuena den Deba ibaia, berreskuratzeko lanak bukatzeko zain dago patxadaz, eta zertarako? Kausei ordez eraginei aurre egiteko. Erasoz eraso, berriro beste bat jasaten ari da: Gipuzkoako Aldundia Epele eta San Prudentzio artean egiten ari den obra.

Eusko Jaurlaritzak, "Ibai eta erreka-ertzen Antolamendurako Jarraibideak" idatzi behar zirela eta, azterlan nahiko zorrotza egin zuen, ibaiak gora egiteko daukeden arrazoi nagusiak jasotzen dituen, eta zera dio:

"Arrazoi ugari dago hirigune, industrialde eta azpiegitura ugari iragiten dieten ibaien igoaldiak, sarritan ohiko igoaldiak, gertatzeko".

— "Lehenik eta behin, hiri eta industriak ibar urperagarrietan eraiki dira, batzuetan errepika-denbora txikiatarako".

— "Ubide asko eta asko estali egin dira, sekzio urriekin".

— "Zubi ugari oztopo dira hazitako urentzat, eta presaren efektua egiten dute".

"Gipuzkoako hirigune eta industrialde askotan, eta Bizkaiko gehienetan, ikus daitezkeen, eraikuntza asko ibaiertzean bertan daude eginda, inguruko gune lauak hartzen dituztela".

"Horrela, uholdeetatik babesteko defentsa-obra egin dira, komunitate biologikoen eta ibaien inguru fisikoaren gainean eragin oso narriagarriak sortuz. Ingeniaritza gogorreko obra horien ondorioz, ibai batzuek aldaketa sakon bezain kaltegarria jasan dute ingurumenaren aldetik".

"Hona hemen bideratze-lanen ezaugarri nagusiak, eta haiek ibai-sistemari ekarri dizkioten ondorioak":

— "Ibaiertzeko landaredia kendu egiten da sistematikoki, bai hiriguneetan bai industrialdeetan, oztopoa baita emari handiak ebakutzeko".

— "Ubideari ahalik eta zabalerarik handiena ematen zaio, agorraldi-kanalik sartu gabe. Ur-lamina ahalik eta gehien zabaltze honek, lamina horren dispersioa, abiadura moteltzea eta kutsadura eta eutrofizazio-fenomenoak agertzea dakartza".

— "Ibaiertzak, landaredirik gabe, birprofilatuta eta aldatuta, higaduraren aur-

ka babesten dira material gogorra erabiltza: hormigoi armatuzko murrak, hormigoizko harri-lubetak eta harri-lubeta lehorrak".

— "Sarritan, dragatzeak egiten dira, eta horiek eragin zuzena dute ibaiako faunaren eta floraren gainean, espezierik exjenteen kalte izugarria eraginez".

"Kasurik gehienetan ia berreskuratu ezinezko jarduketak egiten dira, eta oztopo izugarriak dira ubideen berreskurapen potentzialerako, ur-hondakinak arazteko sistemak martxan jarri ondoren".

Aldez aurreko azterlan horretaz baliatuz, "Ibai eta Erreka ertzen Antolamendurako Jarraibideak" idatzi da. Administrazioaren arabera, irizpide orokorra da *Uren kalitateari eustea, ubide eta ibaiertzen okupazioa edo alterazioa ekiditea, eta arrisku naturalen ondoriozko kalteak txikitzea*.

Ondorioz, administrazioak azpimarratu du *uren ibilgu naturalari ez eragiteko irizpideak beste edozeinen gainetik egon behar duela*.

Ikusi dugunez, Jarraibideak irreak dira: *ez dago ibaien ibilgu naturala ukitzeirik*. Bada, administrazioak berak, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak, aipaturiko Epele eta San Prudentzio bitarteko obretan bi meandrotan aldatu du ibaiaren ibilgua, eta ondoen kontserbaturiko zuhaizti bat suntsitu.

Zuhaizti horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak jarraibideak idazteko aldez aurretik egin zuen azterketan zera dio:

Deba arroa: "Goi-aldea kontserbazio-egoera onean dago, eta ugarienak haltzadia eta horren barietate menditarra dira, Arlaban gaineko pagadietan eta Elgea mendiko ipar-isurialdean txertatuta daudenak. Beherago, Leintz-Gatzaga inguruan, belardiak eta oihanak dira nagusi, haltzadia urrituz".

"Beherago, Eskoriatzatik aurrera alegia, Debaren degradazioa handia da, eta ia ez dago urbazterreko basorik. Larreen portzentajea dezentea handia den arren, batik batik hiriguneak, industrialdeak eta bide-azpiegiturak dira ibaiertzei eragiten dieten erabilerak. *Egoera horrekiko salbuespena San Prudentzioko ingurua da, hegaleko haltzadi eta hariztiekin komunitate naturalaren lekuko gisa balio handia dutelako Deba ibaiaren tarteko atal honetan*".

Ibaien ibilguetako jardueren inguruan Administrazioak dioskuna irakurri ondoren, ez genuke ibaiaren ibilgua bi mean-

drotan aldatzea eta balio handikotzat jotako inguru bat suntsitzea txikikeriatzat jo behar. Beraz, harrigarria gertatzen da Diputazioak obraren memorian argumentu gisa diena irakurtzea.

GI-627 erreperiderako proiektaturiko konponbideak bihurtu gabe zuzentzea du funtsezko helburu, atal horretan 60 km-ko abiadura hartu ahal izateko, eta horrek Deba ibaian bi mozketak egitera eta gal-tzada zabaltzera behartzen du.

Hori bai, Aldundiak EKOSi enkargatu dio inpaktuaren eragina neurtzea. Horrekin, ingurumenari buruz kezkatuta dagoela erakutsi nahi du, jakina.

Azterketa horretan ez dira jarraibideak aztertzen..., zeren eta haiek ibaiaren ibilgua ez aldatzea gomendatuko baitzieten. Egiten den gauza bakarra da inpaktuak azpimarratzea, eta horrela, era asetik honetan, zoriotsu geratzen dira bai EKOSi bai ordaintzen diona, Foru Aldundia alegia.

EKOSek ondorengoa aurkeztu du ondorio gisa:

"Lau inpaktu baloratzen dira larritzat: ibilguaren alterazio geometrikoa, zirkulazioaren gaineko inpaktua obretan, landarediaren suntsipena eta hots-kutsadura eraikuntza-fasean".

Zuzentzeko neurriak aplikatu ostean (zuhaitz batzuk landatzea...), landarediaren gaineko inpaktua "arina" izango dela esaten da.

Barregarria eta iraingarria da gauzak hain era engainagarrian aurkeztea. Maila berean jarri ote daitezke ibaiaren ibilgua aldatzea (dotore esanda *ibilguaren alterazio geometrikoa*) edo egoera oneko gune bateko landaredia guztia suntsitzea, eta trafikoari sortzen zaizkion gora-beherak edo obrak irauten duen bitarteko zaratak?

Guk bezala batek baino gehiagok galdetuko dio bere buruari zertarako balio ote duen ingurumena errespetatzen duen legedia izateak, gero, kasu honetan bezala, administrazioak berak betetzen ez badu, inolako erreparrorik gabe?

Seguruenik, esango digute ez zegoela beste aukerarik.

Inoiz ere ez da egongo, erabiltzen diren irizpide bakarrak ekonomikoak edo automobilaren sustapena badira.

MIKEL OLABE LEIBAR
Ekologistak martxan-eko kidea
Arrasate

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Eztabaida

Irailaren 11n Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) izandako atentatuaren ostean, Bushen iragarritako mendekua gauzatzen ari da egunotan. Oraingo domekan bi

aste beteko dira Estatu Batuek eta aliatuek Afganistan erasotzeari ekin ziotenetik. Aurreko mendea gerra-ekin hasi eta amaitu genuen, eta berria ere bonbardaketaz hasi dugu.

Terrorismoaren aurkako eraso delako esan dute mendebaldeko herrialde nagusietako agintariek. Baina, bakea eta arazoak konpontzea ekarriko du eraso honek?

Afganistanen aurka AEBek eta aliatuek ekin dioten erasoari zer irizten diozu?

Inperio Handiak badu zer pentsatu



MAITE ARISTEGI
EHNEko Idazkari
Nagusia

AEBetako atentatuak erakusten ari zitzaizkigularik, ezinbestekoa zen, bertan hil edo sufritzen ari zirengatik sentitzen genuen ikaraz gain, horren ondorio beldurgarrietan pentsatzea. Zoritxarrez, ohituegi baikaude munduko nagusien barrabaskeria eta benganza asekaitezara. Talibanen jokaera hainbat arlotan zeharo arbuigarria izanda ere, fanatismoaren alde mingarriak erakutsiz, batik bat emakumei dagokienez, gutxi batzuren ekintza

latzak ezin du inolaz ere justifikatu goseak eta erdi hilik dagoen herrialdea eta bere jendea amaitzea. Lotsa ikaragarria sentiarazten du, dabilzan tokian gosea eta miseria zabalitzen dituzten AEBek, justizia eta askatasuna ahoan dituztela, euren tresna aurreratuenak heriotza sortzeko erabiltzen dituztela ikusteak. Eta aliatuen ipur garbitzeak, zer esanik ez. Ezin baita ahaztu, AEBek euren politikarekin, hainbat bazterretako gatazketan hautsak harrotu besterik ez dutela egin.

Aste honetan elikaduraren munduko eguna ospatu dugularik, ezin ahaztu munduan goseak dauden 800 milioi laguneko kopurua gehituz doala, eta hainbesteren ukazioa, batik bat politika ekonomiko, komertzial eta nekazaritzako neurri berezien ondorio dela. Eta horien atzean, bereziki AEBen itzala dagoela. Esate baterako, ez du berretsiz Dibertsitate Biologikoaren konbenioa, Bioseguritatearen Protokoloa zapuzten saiatu zen eta janari transgenikoak inongo kontrolik gabe sartu nahian indar guztiakin ari da. Munduko Bakea mehatxatzeaz gain, ingurumenaren aurka egiten du, eta munduan zeharreko desberdintasun ikaragarriak gehitzeko jarrerari eusten dio.

Halako haziak ereiteak, antzerako fruituak ematen ditu. Inposaketa eta prepotentziaren ordean, badu Inperio handiak zer pentsatu: gatazken arazoietan sakondu, gehiago gerta ez daitezen neurriak hartu eta irtenbideak bilatu. Eta eurak ikusteko gauza ez badira, beste batzuek erakutsi behar: Europak ere badu honetan zeresan handia. Eta benetako bakea eta justiziaren aldeko giza mugimenduek ezin dute (ezin dugu) orain indarririk galdu.

“Benetako bake eta justiziaren aldeko giza mugimenduek ezin dute orain indarririk galdu”

Izaera demokratikoa ez duen herria da Afganistan



ANTONIO PALACIOS
PPko zinegotzia

Argi dago niretzat errazago litzatekeela herrialde batzuk Afganistanen egiten ari diren bonbardaketaren aurrean jarrera kritikoa hartzea, eta mundu askeagoaren eta armarik eta armadarik gabekoaren alde egiten dutenen taldera batzea.

Pentsa dezakegu Estatu Batuak erratu egin direla euren erantzunarekin, eta erabaki neurrigabea hartu dutela, eta Afganistango herritarrek miseria, suntsipen eta txirotasun egoeran jarri dituztela. Baina hona helduta, neure buruari galdetzen diot, benetan izaera demokratikoa duen herrialdea al da Afganistan? giza eskubideak errespetatzen dituen, emakumeen askatasuna sustatzen duena, bertako herritarren beharrik oinarritzkoen arduratzen dena, historia, munduko kulturen uztarriri modura errespetatzen duena, eta bere alboko arabiarrekin harreman ezin hobeak edukitzeaz arduratzen den herrialdea al da?

Ba, egia esan, ez. Afganistanen, fundamentalismoak hautsi ez dituen gauza gutxi geratzen dira suntsitzeke. Afganistanek, bertako herritarrez oso gutxi arduratu diren agintariak ditu, eta hantxe ez dituzte giza eskubide oinarritzkoenak errespetatzen; eta oraindik ez diet entzun hori kritikatzeko, gaur, bonbardaketengatik soinekoak urratzen dituztenei.

Azken batean, Afganistanek nahiago du aliatuen bonbardaketak jasatea, terrorismo arabiarren sareak hornitzeko 5.000 hiltzailez osatutako armada duen nazioarteko terrorista famatua bertan babesteari uztea baino.

Beharbada, gatazka honetan, arazo hau argitasunez ikusten utzi ez diguten topiko larregi erabili dituzte. Beharbada, guk, munduaren globalizazioaren eta bere ondorioen garrantziaz konturatzea lortu dugu. Euskadiko herritarrontzat garrantzitsuena izan behar du, munduari ikusarazteak, ideologia politikoari lotuta, afganiarrak izan barik, Euskadin, tolerantzia eza defenditu eta bizitzeko eskubidea mespretxatzen dutenen aurka borrokatzeko beharra.

“Fundamentalismoak hautsi ez dituen gauza gutxi geratzen dira suntsitzeke Afganistanen”

Gora eta Behera

EZINDUON ARAZOAREKIN KONTZIENTE DIRENAK



Nirekin harremana duen gai bat txalotuko nuke. Jende asko dago ezinduen arazoez jabetu dena, eta horiek guztiak omendu nahi ditut modu xume honetan, benetako buruhaustea den kontu hau eraman-garriago egiten dutelako. Partikularrek egindako lana aipatzekoa bada ere, legezatu egin beharko litzateke eta derrigor bete beharrezkotzat jo.

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK EGITEN DITUZTENAK



Asko dira arazo hau dagoenik ere ohartzen ez direnak. Gasteizen, esaterako, ia edozein lekutatik ibil daiteke erruberadun aulki batean. Ez dut esaten eraikuntza guztietan erreformak egiteko, baina, gutxienez, egiten diren berrietan legez egin beharko lirateke, oztopo arkitektoniko barik.



ARANTXA BIAIN
Arrasateko ospitaleko harreragilea

Koplak

Bush Vs Osama

Udazkenaren zain egon eta iritsi “guda-berria”, bi artaburuk ekin diote arrazoa: aberria.

Orain artean amerikarrak uki ezinak ziraden, hola ez dala frogatu nahian buru-belarri Bin Laden.

Bi hegazkinen atentatutik hilabetea badoa, hasi hain errez egin zen hark du amaiera zailagoa.

Osama ta Bush, Bush ta Osama karakola ta barea, biak onenak diren ustean ea zer nolako pareta.

Amerikarren jokabideak tristea dirudi ia, lehenengo bomba botatzen dute eta ondoren ogia.

Hango “Libertad duradera” ta “Justicia infinita”, ze justizia egin daiteke gerra berri bat hasita.

ENAITZ ALUSTIZA

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Ganorazko kultura eskaintza daukagu Debagoienera?

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzasu Lagunilla, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena
Kominikazio Zehitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Inazio Arregi

Ander Gillegi

ELGETARRA ETA ERRATZUKO PARROKOA

**“Hamasei urterekin,
nahiko argi neukan
Jainkoak abade izateko
bidean jarri ninduela”**

Erratzuko parrokoa eta Elizondoko abade lagunkide berria da Ander Gillegi elgetarra. Azken sei urteotan, Toldedon eta Iruñean Filosofia eta Teologia ikasketak egin ondoren, kristautasunean jarduteko bideari ekin dio 26 urterekin. Jaioterrian esandako esker mezan, herritarrak eta etxeokak izan zituen lagun abade gazte honek.

OXEL EROSTARBE

Urriaren 7an esker meza esan zenuen Elgetan. Zerbait berezia sentitu zenuen?

Oso berezia izan zen umea nintzela meza-mutil eta laguntzen ibilitako elizara bueltatzea. Emozio asko batu ziren elizkizunean, lagunak, etxeokak eta herritarrak han ziren-eta. Gainera, lagun asko etorri ziren meza esaten laguntzera, Esteban lehengo parrokoa eta haren anaia Jose Ignacio, Zornotzako bi pasiotar, nirekin Toledon ikasitakoak, bi abadegai... Eskertzekoa izan zen niretako berezia zen mezan haiengandik jasotako laguntza. Parrokian batu zen jendeare ere nire esker ona adierazi nahi diet.

Ez da arruntena 25 urteko gazte bat abade sartzea. Nondik datorkizu bokazio hori?

Bokazioa aurretik dator. Hamasei urterekin, On Jose Antoniorekin meza-mutil nentzela, konturatu nintzen abade izatea gustuko nuela. Esteban etortzean, hark abade izatea nola bizi zuen ikusita, bide hori hartu behar nuela erabaki nuen.

Seminarioan hastean, bide hori zurea den eta balio duzun edo ez konturatzen zara.

Kontua da estatuko beste probintzia batzuetan ez dela horren arraroa abade izatea, Andaluzian, Madrilen edo Valentzian kristautasunean jarduteko bokazio handiagoa dago.

Gero eta abade gutxiago egon arren, zuk bide horri ekin diozu. Zergatik?

Aukera bat da. Alde batetik, pentsatzen dut Jainkoak bide horretan jarri nauela, kristautasunari laguntzeko bidea hartu dut. Norberaren uste osoak ere badaude, kristautasunean jardutea jendeare laguntzeko modua da. Jendeare zorientasuna topatzen laguntzeko modua da nik hartu dudana bidea.

Noiz erabaki zenuen abade izan nahi zenuela?

Erabakia seminarioan sartu aurretik hartzen da. Hamasei urterekin-edo, erdi serio, abade izan nahi nuela pentsatzen nuen. Seminarioan eman nituen urteen poderioz, ikuspegi helduagotik ikusten nuen guztia. Seminarioan intentzio hori pizten joaten zara. Han, askotan planteatzen duzu hori den hartu nahi duzun bidea edo ez. Azken momentura arte, beti egoten zara egingo duzun aukera egokia den hausnartzen. Seminarioan barneratu egiten duzu zure fedea.

Zer da abade izatetik erakartzen zaituena? Zerbait atzean utzi behar izan duzu bide hori hartzeko?

Lehenengo, Jainkoaren nahia egitea da. Jainkoaren nahia jarraituz lortzen du nork bere zorientasuna. Gainera, abade batek dituen lanak oso erakargarriak dira niretako. Etengabe jendearekin harremanetan diharduzu, jendeare laguntzen, hartu-eman horretan oso gustura sentitzen zara pertsona moduan.

Gauza guztiak bezala, bide bat hartzean beste bat atzean uzten duzu. Herritik joan behar ditugun harremanek inguruarekin baino laneko lagunekin edukitzera eramaten gaituzte. Garrantzitsuena

da bakoitzak aurrera eraman nahi duen bidea boluntarioki erabakitze aukera izatea.

Lagunek, familiak edo inguruak zelan hartu dute zuk egindako aukera? Jendearekin duzun harremana aldatu egin da?

Esango nuke batzuek ulertu dutela, beste batzuek ondo ikusten dutela eta beste batzuek ez zaiela askorik axola. Kristautasunarekin norberak duen ikuspegiaren arabera da euren iritzia nik hartu dudana erabakiarekiko. Batez ere, esango nuke familiak oso ondo hartu duela.

Ezin ukatu jendeak desberdin ikusten zaituela. Ni saiatzen naiz jendearekin gustura egoten eta ahal dudanean laguntzen. Batzuek desberdin ikusten nauten arren, ez nuke esango jendearekin dudana harremana aldatu denik.

Zer eskain diezaioke munduari abade batek?

Nire ustez, gure eginkizuna da gaur egun munduan dauden arazoei eta bizitzari zentzua ematea. Munduari ikuspegi bat eman nahi diogu jainkoaren existentziatik. Jainko horrek gure bizitzan parte hartu nahi duela kontuan hartuta —pentsamendu eta moral berria—, abadeon eginkizuna da Jainkoa gugatik kezkatzen dela zabaltzea.

Zeintzuk dira abadearen betebeharrak? Abade batzuk ez dira betebeharrak horietaz haratago joaten?

Betebehar ofizialen artean, honakoak daude: gotzainari obedientzia, otoitz egitea eta parrokia aurrera ateratzea. Abade bakoitzak parrokia aurrera eramateko modu bat izan dezake. Nire ustetan, garrantzitsua da parrokiakoei ebanjelioa zabaltzea. Ingurukoek Jesukristo ezagutzeko, abadeok bideak eraiki behar ditugu.

Betebehar asko ditugu, eta horiek aurrera eramateko modu asko daude. Abade bakoitzak modu bat dauka lan egiteko. Norberaren heziketak eta kristautasuna ikusi eta bizitzeko moduak abade batek



MUNDUAREN IKUSPEGIA

“Jainkoa existitzen dela eta bere mezua zabaldu behar dugula kontuan hartuta, abadeok ikuspegi berri bat eman behar diogu munduari”

BOKAZIOA

“Estatuko hainbat herrialdean, Andaluzian, Madrilen edo Valentzian esaterako, hemen baino bokazio handiagoa dago kristautasunean jarduteko”

JAINKOAREN NAHIA

“Betidanik egon da kristautasunean jarduteko aukera. Jainkoaren nahia izan da herriko sei gazte bide horretan jartzea”

GESCARTERA AUZIA

“Inbertitzea ondo dago. Auzi horretan, eliza diana erraza dela iruditzen zait”



JON ABRIL

dituen betebeharrak baldintza ditzake.

Musulman askok diote sinesmenatik edozer egiteko prest daudela. "Estremista" moduan izendatu dituzte komunikabide gehienek. Abade izatea ez da sinesmena muturreraino eramateko modu bat?

Norberak bere fedea muturreraino eramatea ondo dago. Ikuspegi batetik begiratuta eta bere zentzu onean, "estremista" izatea ez dut uste gauza txarra denik, gauzen sustraietara eramateko modua da-eta. Azaletik baino, gauzak serio hartu behar direla pentsatzen dut.

Beste kontu bat da zure fedea, berez, gaizki egotea. Gaizki dauden gauzak aurrera eramatea eta horietan sinestea.

Euskal gazteak, orokorrean, sinestunak direla uste duzu? Gizartean sinestun eta ez sinestunen arteko bereizketarik badago?

Publikoki edo kanpotik ikusita, badi-rudi jendea Jainkoarengandik urrun bizi dela. Baina norberak barnean sentitzen duena, ordea, desberdina dela iruditzen zait. Jendeak ez du kanporatzen sentitzen duena. Jendea ez da planteatzen zer sinetsi. Batzuek Jainkoan ez sinetsi arren, dirua edo lana modukoetan sinesten dute.

Sinestea edo ez norberaren aukera da. Lehen, gizarteak, familiak edo giroak, azken baten, sinestera laguntzen zuten. Gaur egun, giroak ez du laguntzen, sinesteko orduan jendea atzera botatzen du. Sinestuna bazara, bizitzeko era bat eraman behar duzu, Jainkoarekin harremana daukazulako. Gizartean dauden arazoei aurre egin behar diezu, behartsuei eta ingurukoiei lagundu, otoitz egin... Badaude laguntzen dutenak sinestunak izan barik, sinestunek, ordea, derrigorrezko dute lagun hurkoari laguntzea.

Esan izan da Euskal kleroa ezberdina dela Espainiakoarekiko. Hala da? Zuk Toledon ikasi duzu, Donostian ikasketak egiteko aukera izanda, zergatik joan zinen Toledoraino?

Espainian desberdintasunak daude leku eta egoeren arabera. Kontuan hartu behar da kultura eta bizimodu desberdina daudela, eta horrek hainbat arazo sortzen dituela. Leku bakoitzean era desberdinetako arazoak dituzten pertsonak daude. Ezin zaie arazoei modu bateratuan irtenbidea eman, horregatik, elizak ere jokatzeko modu desberdina dauka leku bakoitzean.


Toledora joateko aukera egin nuen, han heziketa hobea jasoko nuelako. Han, abadegai kopurua handiagoa zen, horrek eskoletako maila igotzeaz gain, jende gehiagorekin harremana izanda, norberaren ikusteko modua besteek dutenarekin alde- ra daiteke. Norbera zabaltzeko aukera ere hobea zen. Eta, horrez guztiaz gain, hango maisuak gazteagoak eta modernoagoak ziren.

Loiolako gazteen taldeko partaide zara? Zeintzuk dira gazte talde horren helburu nagusiak? Zein ekintza egiten dituzue?

Loiolako gazte taldeko partaide naiz, estatuan, JRC deritzonaren barruan dago, eta munduan, Otoitzaren Apostoluzaren egiturari kokatzen da. Taldearen eginkizuna da jende gazteari kristautasuna bizitzeko eta aurrera eramaten laguntzea. Alde batetik, heziketa jardunaldiak antolatzen ditugu, otoitzean ere aritzen gara, ahal denean parroketan lagundu edo gizarte zerbitzuren bat egiten saiatzen gara.

Gescarteraren auzia jarraitzen duzu? Zelan ikusten duzu Eliza inbertsio negoziotetan nahastua egotea?

Berez, ondo iruditzen zait elizak inbertitzea. Baina kontua da enpresa hori iruzurra izan dela. Azkenaldian Elizako norbaitek hanka sartzen duenean, Eliza oso- ari erantzukizuna eskatzera jo da. Ez dut sinesten Eliza, orokorrean, inbertsio horien atzean dagoenik. Gescartera auzian, eliza diana erraza dela iruditzen zait, guztiak instituzio horrekin sartzeko diana erraza, alegia.



JON ABRIL

"Elgetan sei bokazio berri izatea oso pozgarria da"

Azken urteetan, Elgetako gazte ugari- ko aukera. Bat-batean horrenbeste jende- dek aukera hori hartzea zelan balora- tzen duzu?

Nire ustetan, oso positiboa da kris- tautasunean jarduteko prest dauden per- sonak egotea. Jainkoak asko lagundu digu kristautasunari bokazioa eskaintze- ko hartu dugun erabakian. Haren bidea

jarraitzeko, guztion bihotzetara deitzen digu Jainkoak. Elgetan Loiola gazte taldeak egin duen lana azpimarratuko nuke, kris- tautasunean sinesten genuen gazteoi boka- zioan eta sinesmenean aurrera egiteko bideak bazeudela erakutsi digu-eta.

Zelan liteke bat-batean bokazioa piz- tea?

Betidani egon da kristautasunean jar- duteko aukera. Azken urteetan, utzita

zegoen jarduerari berriro ekin diogu Elge- tan. Oso positiboa da berriro ere Jainko- aren bidea hartzeko gertu dauden gazte- ak egotea.

Azken urteetan, sei bokazio berri izan dira herrian. Jendeak ulertu behar du bokazioak guztiz betetzen gaituela. Gero, norberak duen pertsonalitatearen arabe- ra erabakitzen dugu zein modutan jardungo dugun kristautasunean.

Podiuma

Enrique Nieto | UDA TALDEKO ENTRENATZAILEA |

UDA futbol taldeak hasiera ezin hobea izan du preferente mailako ligan.

Jokatutako sei partiduetatik bost irabazi eta bakarria berdindu dute, eta atxabaltarrak liderrak ditugu, 16 punturekin. Orain arte partidurik galdu ez duen talde bakarria da UDA. Domekan, Urolaren kontra jokatuko dute Ibarra-ko futbol zelaian, 16:30ean. Bigarren urtez Enrique Nieto bergararra (36 urte) dugu UDAko entrenatzailea. Liderrak izan arren, taldearen helburua mailari eustea dela dio Nietok.

Taldea sasoi betean dagoela dirudi. Zein da UDAREN sekretua?

Egia esateko, ez nuen espero horren hasiera ona izatea. Banekien txarto ez ginela hasiko, baina sorpresa izan da lehenengo bost partidua jarraian irabaztea. Domekan, berriz, Mutrikuren aurka bana berdintzea lortu genuen. Talde sendoa daukagu eta hori da sekretu bakarria. Hogei jokalaria dira plantilan eta edozeinek dauka jokatzeko aukera, ez dago figurarik.

Joan zen denboraldiarekiko, bada aldaketarik?

Ia plantila bera daukagu. Aldaketa bakarria orain arte gazte mailan aritutako bi jokalaria fitxatu ditugula izan da: David Cana (UDAko gazte talde-
tik etorritakoa) eta Jon Sánchez (Eibar taldean jokatu duen bergararra). Aretxabaleta moduko herri batean harrobiarekin lan egitea zaila da, eta



Nietok nazional mailako entrenatzaile titulua dauka. E.M.

“Taldearen helburu nagusia mailari eustea da. Gure lehen asmoa 45 puntu lortzea da. Preferente mailan berdintasuna da nagusi”

“Ibarran jokatzen ditugun partiduetan zaleek asko motibatzen gaituzte eta erosoago jokatzen dugu”

inguruko herrietako jokalariek hartu behar izaten ditugu. Askotan euren herrietan jokatzerik izan ez duten jokariengana jotzen dugu plantila osatzeko. Talde gaztea daukagu. Batez besteko adina 22 urtekoa da eta hiru jokalaria beteterano ditugu bakarrik: Kepa Azkue (33 urte), Xabier Zangitu (29) eta Erik García (26 urte). Zelaian zein zelaitik kanpo ere blo-

ke indartsua daukagu.

Gai izango zarete lehen postuari eusteko?

Taldearen helburu nagusia mailari eustea da. Horretarako gure lehen asmoa 45 puntu lortzea da. Hortik aurrera ikusiko da. Preferente maila oso kategoria zaila da, eta aurten sekula baino berdintasun handiagoa dagoela esango nuke. Nire iritziz, Tolosa eta Elgoibar dira faborito

nagusiak. Hala ere, partiduz partidu ikusiko da gure benetako maila.

Zelan ikusten dituzu Debagoieneko beste bi taldeak, Aloña eta Bergara?

Oraindik ez dut Aloña ikusterik izan. Badakit talde gaztea duela, harrobiko jokalariek osatutakoa, eta aurten asko borrokatu beharko dutela uste dut. Bergarari dagokionez, joan zen denboraldian hirugarren mailan zuten talde berdintsua mantentzen du, eta talde ona daukate. Nik uste dut Bergarak gora egingo duela sailkapenean.

Zuk zeuk zeri ematen diozu lehentasuna, irabazteari ala ondo jokatzeari?

Joko ona egitea eta irabaztea osagarriak dira. Hala ere, partiduak irabazteari lehentasuna ematen diot, emaitzek agintzen dutelako futbolearen. Dena den, gauzak ondo egiten badira, emaitzak etortzen dira normalean. Onena hori izaten da: irabaztea, ahal izanez gero, joko ona eginez, zaleak kobentzitzen.

Ibarran eta etxetik kanpo berdin jokatzen du zure taldeak?

Ez. Ibarran jokatzen ditugun partiduetan zaleek asko motibatzen gaituzte eta erosoago jokatzen dugu. Etxeko azken partiduan, Elgoibarren aurka jokatutakoan, 700 zale inguru izan ziren, eta hori eskertzekoa da. Etxetik kanpora, berriz, mesfidantza apur batez jokatu izan dugu orain arte. Ez dugu gure benetako maila ematerik izan. Ea liga aurrera joan ahala etxean zein kanpoan berdintsu jokatzen dugun.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Josemi Elizburu

Txirrindularia



Elizburu erlojupeko probetan nabarmendu zen batik bat.

Bi urte eman zituen profesionaletan.

Afizionatuetan Iberdrola taldean aritu zen.

Duela bi urte utzi zuen txirrindularitza.

Estepona eta Fuenlabrada taldeetan (ekipo bera zen baina babeslea aldatuta) bi urte eman eta gero, oso gazte utzi zuen txirrindularitza Josemi Elizburuk, 22 urterekin hain zuzen: “kanpotik eta barrutik oso desberdin ikusten da profesionalen mundu hori, eta hainbat gauza ez zitzaizkidan batera gustatu. Pixka bat desilusionatuta bukatu nuen txirrindularitzaekin”. Afizionatuetan hiru urtez aritu zen Iberdrola taldean: lehenbizikoan ez zuen korritzerik izan soldadutzan zegoelako, eta hurrengo bietan maila bikaina azaldu zuen, erlojupeko probetan, batik bat: besteak beste, mundialaren aurretiko proba irabazi zuen Alegian, eta 1997an Euskadiko erlojupeko txapeladuna izan zen. Berak esaten duen moduan, “nahiko txirrindulari konpletoa nintzen, baina erlojupeko probetan ibiltzen nintzen ondoen. Izan ere, afizionatuetan irabazi nituen lau lasterketa erlojupekoak ziren”. Iberdrola ONCE taldearen filiala izanik, pentsatzekoa zen profesionaletan ONCErekin egingo zuela debuta. Hala ere, Manolo Saiz ONCEko zuzendariak Estepona taldearekin fitxatzeko proposatu zion: “ONCEn ez zegoen guztiondako lekurik, eta Estepona taldera joatea erabaki nuen. Han Maximino Pérez izan nuen zuzendari, eta esperientzia positiboa izan zen. Txirrindularitzak ere alde onak eta txarrak ditu, baina nik uste dut aberasgarria izan zela mutikotatik amestutako mundu hori ezagutzea”. Itzuli handirik korritzerik izan ez zuen arren, Estatuko lasterketa gehienetan parte hartu zuen, eta Frantziako probetan ere askotan izan zen. Txirrindularitza utzi ostean, lanean hasi zen, baina gaur egun langabezia dago. Bizikleta ez du guztiz baztertu: “arra beti egoten da barruan eta gustatzen zait ahal dudanean kilometro batzuk egitea”. /E.M.

“Kanpotik eta barrutik oso desberdin ikusten da profesionalen mundua. Pixka bat desilusionatuta bukatu nuen txirrindularitzaekin”



Josemi Elizburu • Aretxabaleta • 1976

Golf ikastaroak izango dira azaroan Urturin

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta, golf ikastaroak izango dira azaroan Urturiko golf eskolan, Arabako mendialdean. Hastapen ikastaroa azaroaren 10ean eta 11n egingo dute, eta hobekuntza mailakoa, aldiz, azaroaren 17an eta 18an Orduategia honako hau izango da: 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Kirol zerbitzuetako bazkideek 8.000 pezeta ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, berriz, 10.000 pezeta. Argibideak, Debagoieneko kirol zerbitzuetan.



Kirolabur

ARAMAIO/

'RALLY-SPRINT' A

Bihar, *rallysprinta* izango da Aramaion, Azpiko Racing taldeak antolatuta. Arratsaldeko hiruretatik aurrera, hogeita hamabi autok Azkoagatik Kurtzetarako bidea hartuko dute, eta gero buelta. Ibilbide hori birritan egin beharko dute, 21 kilometro guttira, eta banan-banan kronometratuta egingo dituzte.

Errepidea arratsaldeko ordu bi eta erdietan itxiko dute, baina autoek goizean goiz egin beharko dute autoaren inspektzioa; hortaz, egun osoko jardunaldia izango da. Irabazleak ehun mila pezeta eta trofeo eskuratuko ditu, eta esan beharrik ez dago ikuskizuna gura duenak asetzeko lain izango duela.

ZIKLISMOA/

MARKEL IRIZAR

Oñatiko txirrindulari gaztea Lisboan izan zen pasaden astean Munduko Txapelketa jokatzeko. Erloju-kontrakoa ez zuen nahi bezala egin, eta 21.a izan zen, txapeldunetik bi minutu eta erdi pasatxora. Errepideko lasterketan gusturago ibili zen, eta 150 txirrindularik parte hartu bazuten, 82 ziklista soilik heldu ziren helmugara. Markel 48.a izan zen, eta gustura geratu da lasterketa horrekin.

Orain, atseden hartzea tokatzen zaio, eta datorren denboraldirako profesioaletara salto egiteko asmoa du.

ARRASATE/

KIROLDEGIA

Musakolako Kiroldegia gaur inauguratu dute, eta oraingo asteburuan herritarrek berau bisitatzeko aukera izango dute. Sarrera doan izango da.

Musakolako Kiroldegiko lanak pasa den urteko abenduan hasi ziren, eta besteak beste, garbitzaileen greba zela medio, lanak asko atzeratu dira. Kiroldegia betiko martxan hasiko da urriaren 22tik aurrera.

PILOTA/ARETXABALETA

Azaroaren hirutik abendua-aren hogeita bira arte, pilota txapelketa jokatu da Aretxabaletan. Txapelketa federatu barik dauden eta kirol apur bat egin gura dutenendako dago zuzendua, eta bi kategoria izango dira. Lehenengo mailan federatu ohiak izango dira, eta bigarren mailan, gainerako pilotariak.

Esan beharrik ez dago txapelketa pilota goxoekin jokatuko dutela. Izena emateko 943712628 telefonora deitu.

Saharako basamortua alderik alde

Alberto Iñurrategi eta bere lagunek Saharan biziko dute hurrengo abentura

Alberto Iñurrategi, Jon Lazkano, Jon Beloki eta Asier Aranguren mendia garaiak basamortuko hareagatik aldatuko dituzte, Saharako basamortuan bizi eta grabatuko dituzte-eta abentura berriak. Jon Lazkano, Alberto Iñurrategi eta Jon Beloki Tunisian dira dagoeneko, eta basamortua gurutzatzen duten bitartean, eskalada apur bat egiteko aprobetxatuko dute. Azken baten, beste abentura bat.

Euskal Telebistak apustu sendoa egin du *Oinak Izarretan* saioarekin, eta saioko kapitulu berriak grabatzeko asmoz, orain arte mendi garaietan ikusi ditugunak harea eta duna artean ikusiko ditugu.

Jon Lazkanok hainbat egun daramatza Tunisian, eta oraingo astean, Alberto Iñurrategi eta Jon Belokik Afrikarako bidea hartu dute. Espedizioa azkenak Euskal Telebistako Asier Aranguren kazetaria eta Asier Arribas kamera dira, eta haiek datorren astean joko dute hegoalderantz.

Espedizioa kideek Aljeriako eta Nigerreko lurak gurutzatuko dituzte. Abentura Tunisian hasiko da, eta Aljeriatik Saharako basamortua gurutzatzean, Nigerreko lurretara iritsiko dira. Zeharkaldi hori lur orotako ibilgailuekin egingo dute, eta aireko irudiak hartzeko hegazkin ultra-arin batez baliatuko dira.

Saharako basamortua gurutzatzeaz gain, mendizaleek eskalada egiteko intentzioa daukate, eta hori, Hogar eta Djadoko haitzetan egingo lukete. Bidaia, hasiera baten, hilabete iraungo du, baina espedizioa kideek argi daukate bidaia apur bat luza daitekeela. Azkeneko egunotan herri musulmanak bizi duen egoera dela eta, badirudi bidaia arriskutsua izan daitekeela, baina Asier Aranguren esanetan, ez dago inongo arazorik. "Hala ere, *Oinak Izarretan* saioa egiteak beti izan du arrisku puntua, eta oraingo bidaia ere arrisku apur bat derrigor izan behar du".

JAIALDI ARRAKASTATSUA

Bestalde, Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioaren aurkezpena arrakastatsua izan zen; egubakoitzean, hilaren 12an, jende mordo elkartu zen Euskalduna jauregian. Horrez gain, helburu nagusia, hau da, fundazioa gizarteratzea, ekitaldi polit batekin burutu zen, eta bai Euskal Telebistako zuzendaritza baita Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioko kideak pozik agertu dira fundazioaren aurkezpenak izan duen oihartzunarekin.

XABIER URZELAI



Basamortuko irudiak hartzeaz gainera, eskalada egiteko aprobetxatuko dute espedizioa kideek.

GARIKOITZ KORTAZAR

oihuka
eskatzen
ari zinen



mugikorrak



fax mugikorra



informatika mugikorra



smartphone

Gogo handiz eskatzen ari zinen. Behar zenuen. Telefonía mugikorrek benetako profesionalak, **movitel2000** eta **Telefónica MoviStar**, Gipuzkoan eta Nafarroan gehien zabaldu den telekomunikazio-taldea, Arrasaten daude orain. **Mugikorrak, osagarriak, enpresako telefonía, aholkularitza pertsonalizatua eta aitzindari baten prezioak...** Zure komunikazioetarako imajina dezakezun guztia, Arrasaten Biteri kaleko 15 zka. duzu. **Azkenean.**

- **DONOSTIA** Toribio Alzaga - Tel.: 943 46 09 63
- **BEASAIN** Oriamendi-Etxe Ubi - Tel: 943 80 50 89
- **IRUÑA** Irunlarrea,6 - Tel: 948 19 70 72

Banatzaila Ofiziala:



Biteri Etorbidea, 15 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 77 21 33 • Fax: 943 77 21 34
www.movitel.com - arrasate@movitel.com





Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

ERAKUNTZA

1989ko martxoaren 20an eratu zen Gasteizen Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa, Eusko Legebiltzarrak indarrean daukan Euskadiko Kooperatiben legearen, 1/1982 otsailaren 11koa, babespean.

FEDERATUTA DAUDEN KOOPERATIBAK

1999ko ekainean federatuta dauden kooperatiba kopurua **351**koa da, lurraldeka banaturik:

- Araba61
- Gipuzkoa.....156
- Bizkaia134

LANGILE BAZKIDEAK

351 kooperatibek **23.532** langile-bazkide dituzte. Lurraldeka banaturik:

- Araba1.584
- Gipuzkoa.....16.695
- Bizkaia5.253

ZERBITZUAK

Federazioko kooperatibek ondorengo zerbitzuak dohainik hartzeko eskubidea dute:

- Erakunde-ordezkaritza
- Kudeaketa-tresnak diseinatzea, adibidez:
 - Urteko Kudeaketa Planak
 - Kostuak kontrolatzeko sistemak
 - Jendearen poztasun-maila neurtzekoa
 - Kudeaketaren kalitatea aztertzekoa
- Prestakuntza tekniko eta kooperatiboa
- Merkataritza eta Kreditu Zerbitzua
- Aholkularitza eta informazioa:
 - Juridikoa
 - Soziala
 - Ekonomikoa
 - Zergei buruzkoa
 - Finantzarioa
- Finantza eta komunikazio erakundeekin lankidetzaren hitzarmenak lehentasunezko baldintzetan

FEDERAZIOAREN PRINTZPIOAK

- Federatutako kooperatiba bakoitzaren autonomiaren errespetua
- Federazioarekiko atxikimendua edo atxikimendu eza norberaren baitan dago
- Elkartutakoen interesen zerbitzuan eta defentsaren helburuarekin
- Barneko gestio demokratikoa



Reyes de Navarra, 51
Tel.: 945 25 70 88
Faxa: 945 25 39 59
01013 GASTEIZ
posta-e: koop@euskoop.org
www.euskoop.org

Goienka2a

Egubakoitza / 2001ko urriaren 19a


Kultura
eta
aisialdia



Urriaren
19etik 26ra

Aloñako gurutzeak 100 urte

Aloñako gurutzearen mendeurreneko batzordeak lan bikaina egin du azken hilabete hauetan, urteen poderioz hondatuta zegoen gurutzea konpontzeko. Gurutzea ez ezik, ondoko etxola ere berritu eta mendizaleendako aterpe egokitu dute. Ez dira, baina, konponketa lanak bakarrik izan, mendeurrena ospatzeko beste makina bat ekitaldi antolatu dituzte-eta. Egun handia joan den zapatuan ospatu zuten Aloñako tontorrean, baina oraindik ez dituzte ospakizunak amaitu, Gabonetan, mendeurrenaren berri emango duen liburua argitaratuko dute-eta. Iaz, Aloña Mendi elkartearen 50. urteurrena zela-eta argitaratu zen liburuaren ildo beretik, Aloñako eta Oñatiko gainerako mendien azterketa egingo dute, besteak beste, liburuan. Horren zain egongo gara. Baina bitartean, gurutze berrituaren itxura dotorearekin geratuko gara. Ondo sendatu ondoren, gutxienez, beste ehun urte iraun dezala. /14



OSPAKIZUNA/ ALOÑAKO GURUTZEAK 100 URTE

Aloñamendiko gurutze berriua

EHUNKA LAGUN ELKARTU ZIREN JOAN DEN ZAPATUAN GORGOMENDIN, ALOÑAKO GURUTZEAREN 100. URTEURRENA OSPATZEKO

Aloñako gurutze berriua bedeinkazio guztiak jaso zituen joan den zapatuan, 100. urteurrenean. Urteak joan eta urteak etorri, euriak, haizeak eta hotzak hondatu egin dute gurutzea. Azken hilabeteotan, ordea, berritzen aritu dira, eta lehen mendeurrena ospatzeko dotore laga dute.

Gurutzea ez ezik, ondoko aterpea ere eraberritu dute. Mendeurrena hurbiltzen ari zela kontuan izanda eta gurutzearen egoera ikusita, berau konpondu eta apaintzea erabaki zuten Aloña Mendi elkarteak. Eta zeregin horretan jardun dute auzolanean, Pedro Zabala, Andres Osinaga eta Fernando Maiztegiren gidaritzapean. Zuloak estali, herdoila kendu, bi milimetro lodiko altzairuzko kapa eman... Dotoretuta utzi dute gurutzea. Sei milioi pezeta gastatu dituzte berritze lanetan. Eta, gurutzearen ondoko etxola zaharkitua, Segura irratiak orain dela 25 urte eraiki eta azken urteotan erabat utzita zegoena, mendizaleendako aterpe bihurtu dute. Aterpe berria mendiaren magalean dago, tontorretik 60 bat metrora.

Lan horiek guztiak inauguratzeko eta gurutzearen lehen mendeurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituzten zapatuan Aloñan bertan. Ospakizunak goizeko 08:30ean hasi ziren. Ordu horretan, Oñatiko Foruen plazan elkartu ziren ehunka lagun, mendi tontorreraino hiru orduko ibilaldia egiteko asmoz. 11:30 alderako goian ziren (1.248 m). Eguerdian meza izan zen, Gipuzkoako gotzain Juan Maria Uriartek esana. Oñatiko abesbatzak eta parrokiako koroak abestu zuten mezan. Mezaren ostean, bedeinkazio guztiak jaso zituen gurutze berriua. Gero, *Aurreksua* dantzatu zuten Oñatzeak itxitura berrian. Bertsolariak eta trikitilariak ere izan ziren, eta argazkiak ateratzeko eta ogitartekoak jateko unea ere izan zen.

Herritarren artean, Angel Iturbe Oñatiko alkatea eta Juan Zelaia Cegasako ugazaba. Lehenengoak agerrarazi zuen aterpe berriko plaka, eta 'Upain'ek gurutzeakoa.

ENEKO AZKARATE



IÑAZIO ARREGI

Gehienak oñatiarrak ziren, baina Debagoieneko beste herrietatik ere hurbildu ziren Aloñamendira zapatuan.



I.A.

1940ko hamarkadako argazkia.



I.A.

Aloñako gurutzea elur eta izotzez estalia.



I.A.

100. urteurrenerako eraberritua.

Udalatxeko gurutzeak 30 urte

Udalatx, hau da, Mondragoeko mendirik ezagun eta maitatuen, ere ospakizunetako murgilduta dago. Hain justu, joan den egubakoitzean, Pilarreko Amaren egunean, ospatu zen Udalatx Eguna. Aurtengoa, gainera, berezia izan da. Izan ere, 30 urte bete dira Udalatxeko tontorrean (1.117 m) dauden bi gurutzeetako lehenengoak jarri zutelako. Hori dela eta, Aloñakoa bezala, berritzen ibili dira aurtengo udaberrian Udalatxeko gurutzeak.

Udalatx Eguna, baina, gainbeheran egi dago azkenaldian, gero eta mendizale gutxiago elkartzen da-eta. Gainera, azken hiru urteotan, ezin izan dute meza tontorrean esan, nork emango duen aurkitu ez dutelako antolatzaileek. Horrenbestez, Udalako San Esteban elizan esan dute aurten ere meza.

Udalatxeko gurutze nagusia 1971ko urriaren 12an ipini zuten. Harrezkero, urtero-urtero antolatu izan da Udalatx Eguna, besteak beste, hildako mendizaleak omentzeko. Aurten, Anatolio Saiz,

Jesus Maria Beltrán de Guevara eta Julio Bergaretxe omendu dituzte. Joan den egubakoitzean, 120 bat lagun elkartu ziren Udalatxeko tontorrean. Goizeko 09:00etan Udalatik irten eta 11:00etan hasi ziren ospakizunak tontorrean. Eguerdiko 12:30erako meza entzuteko, berriz, behean ziren gehienak. Ohikoa den moduan, Aita On Lekuonaren *Udala Mendi* abestu zuten mezan. Jai giroan eta anaia artean ospatu zuten eguna, eta eguraldia lagun izan zuten; eguzkia nagusi izan zen goiz osoan.

Tontor gehienetan

Euskal Herriko mendietako gurutzerik ezagunenetakoa Gorbeikoa da. Gurean, berriz, Aloñakoa. Baina mendi tontor gehienetan daude gurutzeak. Batzuetan, bat baino gehiago, gainera. Gailurretan gurutzeak jartzea oso ohitura zabaldua da Kristau-zibilizazioan. Izan ere, XX. mendea hastearrekin batera, hainbat gurutze ipini zituzten mendi tontorretan. Leon XIII.a aita santuak hala aginduta jarri zituzten gurutzeak. Aloñakoa da horietako bat. Hain justu, 1901eko

urriaren 13an jarri zuten. Bederatzi metrokoa, burdinazkoa. Arrasateko Vergarajauregui-Resustan, gero Unión Cerrajera izango zen lantegian, egin zuten gurutzea. Jarri zutenean baita 50. urteurrena ospatu zutenean ere — orduan 2.000 bat lagun elkartu ziren Aloñan —, oroigarriak jarri zituzten, bietan latinez. Joan den zapatuan jarri zuten hirugarren oroigarriak, ordea, euskarazko leloa daroa: *Gurutze Santua. Zaindu Oñati, orain eta beti. 2001eko Urte Santua.*

Liburua Gabonetan

Aloñako gurutzearen mendeurrenaren ospakizunekin amaitzeko, liburua argitaratuko dute Gabonetan. Abenduaren 24an aurkeztuko dute. Iñazio Irizarrek idatzi du eta 250 bat orrialdekoa izango da. Liburuak hainbat atal izango ditu. Besteak beste, honakoak: mendiaren ezaugarri fisikoaren gainera (landaretza, geologia, haitzulak...); gizakiak mendian utzitako aztarnak, edo aspektu antropologikoak, karobiak, mendiaren erosioa eta abar jasotzen dituenak; Aloñari buruz literaturan idatzitakoari buruzkoa; mitologiari buruzkoa; orain dela 100 urte gurutzea jartzeko emandako urratsen gainera; mendeurrenaren konponketa lanei buruzkoa... Erraz irakurtzeko idatzitako liburua izango da, argazki askorekin.

JAIALDIA / FELIX IÑURRATEGI-BALTISTAN FUNDAZIOAREN AURKEZPENA JENDAURREAN

Elkartasunean mendia bide

PAKISTANEN HAINBAT AZPIEGITURA LAN EGITEKO FUNDAZIOA AURKEZTU ZUTEN EUSKALDUNA JAUREGIAN

Izen handiko artistak elkartu ziren joan zen egubakoitzean Bilboko Euskalduna jauregian. Aretoa bete egin zen, besteak beste, Ainhoa Arteta, Kepa Junkera eta Mikel Urdangarinen emanaldiak ikusteko. Pakistaneko Machulu herrixkan hainbat azpiegitura lan egiteko dirua batzeko antolatu zuten jaialdia. Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak antolatu zuen.

Hiru hitz izenburu baterako. Esanahi propioa izan arren, jarraian idazterakoan batak bestea azpimarratu eta elkar indartzen dute. Ezin da ulertu mendia biderik gabe, eta ezta ere mendizaletasunaren betiko ikuspegia, lehengoa eta biharko ere nahiko genukeena elkartasunik gabe.

Hori gogoraraztera hurbildu zitzaizkigun urriaren 12an Bilboko Euskalduna Jauregira Euskal Herriko artistarik ezagunenetarikoz batzuk. Horiek ere, euren musika nota, dantza eta umore puntuarrekin, Euskal Herriatik Baltistan aldera darman bide luzeak behar dituen harlauzak jartzen lagundu nahi izan zieten Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioko kideei.

MAILA HANDIKO ARTISTAK

Euskal Herri honetan elkartasun adierazle diren hainbat ekitaldi ikustera ohituak bagaude ere, gutxi dira lehengo eguneko maila erdietsi duten ikuskizunak. Izan ere, ez da erraza izaten Argia taldearen dantza tankera berriztuak Ainhoa Artetaren kanta liriko klasikoekin uztartzea, edota Kepa Junkeraren eta berarekin ekarri zituen txalaparta jotzaileen erritmo biziak Mikel Urdangarinen malenkoniatsu batekin lotzea, edo Andoni Egaña eta Sebastian Lizasoren bat-batekotasunaren freskotasuna Mikel Martinez eta Patxo Telleria "freskoekin" elkargatzea. Zer esan Koldo



MARISOL RAMIREZ / GARA

Kepa Junkera, joan zen egubakoitzean Euskalduna jauregian izan zen jaialdiko protagonistetako bat.

Amestoiaren ahotik entzun genuen, Zuberoratik eta Baltistandik zeruan ikusi daitezkeen zazpi izarren ipuinaz.

Maila eta kalitate handiko jaialdia toki ezin hobea batean, eta saihestu ezinekoak Felixen izena eta izanari egindako aipamen eta keinuak. Bere esaldiak izan ziren bideo proiektzioaren ardatz. Une hunkigarriak ere ez zen falta izan honelakoetan gertatu ohi den bezala. Lizasok Egañari erantzunaz botatako azken esaldia gogoan: Non

den Baltistan? Euskaldunentzat hurbil eta Felixentzat bertan.

Artista hauek guztiek Fundazioa eta Baltistan ezagutzeko aukera eman digute. Hango gizon eta emakume, edo emakume eta gizonen neke eta beharrak. Miseria eta pozak. Eta artista hauei esker, bat baino gehiago dira bideo proiektzioak jarretzeko ahaleginean, edo Baltistango zeruan zazpi izarrik aritzen laguntzeko, Fundazioak izango dituen bidelagun berriak.

Bukatzeak, akats txiki bat. Aukeratu-tako data, zubia zela kontuan izanda, ez zen egunik onena hainbatentzat eta, bereziki, horrelako aukeren zain egoten diren mendizaleentzat. Ea grabatutako irudiak beste egunen batean ikusteko aukera ematen diguten, benetan merezi du-eta. Aurkezleek ere lan bikaina egin zuten, hori ere nabarmentzekoa da.

GOIENKARIA

NIREAUKERA

Ana Gallastegi Ana liburu-dendakoa

Ez naiz liburuak egunero irakurtzen dituen horietakoa. Gainera, esan beharra daukat, irakurtzen ditudan gehientsuenak nire ahizpak gomendatzen dizkit, haren irakurzaletasuna handiagoa baita.

Azkeneko irakurri dudana liburu bat freskoko, eta gustukoa izan dudanez gomendioa ere hortxe joango da. *Nosotras que nos queremos tanto* dauka izenburua, eta lau andrazkoen gaineko istorioak kontatzen ditu. Andrazkoen esperientziak, maitasun kontuak, bizitzaren gainean egiten dituzten hausnarketak... era horretako kontuak.

Hasi eta amaitu egiten den liburu horietako bat da Marcela Serranoren nobela hau. Egunkari eta aldizkariak irakurtzen zaletuak garenontzako egokia dela deritzot, liburuaren lagun egiten gaudenontzako aproposa benetan Marcela Serranoren lan hau.

“NOSOTRAS QUE NOS QUEREMOS TANTO” Marcela Serrano



IBAN ARANTZABAL

KALERATUBERRIAK / Iban Arantzabal

LIBURUA / Biztanle entitateak



BIZTANLE ENTITATEAK

EAEko biztanle entitateak
Eudel
175 orrialde

Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak izeneko argitalpena Euskaltzaindiak prestatutako liburua da.

1986an hasitako lan batean du abiapuntua, baina oraingo honetan, zenbait datu (deitura ofiziala, udalerrria) berrikusi eta eguneratu egin ditu Euskaltzaindiak, eta baita garai hartan proposatu zituen euskal izenak berrikusi eta, zenbait kasutan, proposamenok aldatu ere.

Herri/auzo bakoitzeko herritarren erreferentzia egiteko izenak (gentilizioak) ere badatoz liburuan. Ez da, liburu hartu eta goitik behera irakurtzen den horietakoa, baina herri hauek nola idatzi behar diren jakiteko modua ematen du Eudelek argitaratutako liburu honek.

DISKOA / Jazz



IGELAREN BANDA


Igelaren banda
Laida elkarlanean
12 abesti

Jazz edo musika berrietatik abiatutako ereduetatik aurrera joz sortutako abestiak daude entzungai disko musikalki honetan.

Musika tradizioaletik eta inprobisazioetik datozen musikariak batzen ditu. Errepertorioa Euskal Herriko musika tradizioaletik hartutako erritmo eta doinuetan oinarritu bada ere, piezak grabatzerakoan, inprobisazioari leku zabala eskaini diote, erritmikoki eta harmonikoki ezohiko bideak landuz.

Zeintzuk diren "errudunak"? Bixente Martinez, Txarli de Pablo eta Iñigo Egia. Aspalditik Euskal Herriko panorama musikalean ezagunak diren musikariak besteak beste, eta bereziki, Oskorri taldean egindako lanagatik eta egiten ari direnagatik.

DISKOA / Rock



HAIN GUAPA ZAUDE

Jabier Muguruza
Metak
12 kantu

Zein kantu gutxi horren disko ederrera. Jabier Muguruza, ohituta gauzkan eran egin du CD berri hau ere, *Hain guapa zaude* izenekoa.

Beharbada, gonbidatu ezagunen artean Kiko Veneno, *Etzera berandu heltzean* kantuan eta *Herri apaindua* deritzon, single itxurari handiena duena seguruenik. Kantu ederrak asko, denak... ederrenerako artean *Kontzertuak frakaso egin du*, Euskal Herriko kontzertu "txiki" askotarako modukoa, entzuleok askotan *frakaso* bat garelako. Les Mecanicien bertsioa ere ederra.

Boza barruan, Kitarra bat nintzen, Aise, Fiordoan eta azkenik, ibilbidea borobiltzera datorren *Hain guapa zaude*; ederrak bostak.

Urria: 19-26

Edu Mendibil / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

ANTZERKIA

ESKORIATZA

► **Free-Pelota** taldearen *El marido de la Pakita* egubakoitzean, hilaren 19an, Jose Arana ikastolan, 22:30ean.

ELORRIO

► **Druida dantza** taldearen *En espera* izenburuko antzezlan egubakoitzean, urriaren 19an, Arriola aretoan, 22:30ean.
► **Tutik ere clown** pailazoaren eskutik, *Pan pan hasteko Pan bukatzeko* domekan, hilaren 21ean, Arriola aretoan, 17:00etan.
► **El rayo misterioso** talde argentinararen *Muz* antzezlan datorren egubakoitzean, hilaren 26an, Arriola aretoan, 22:30ean.

DANTZA

BERGARA

► **Aukeran** dantza konpainiaren *Sutargi* ikuskizuna egubakoitzean, hilaren 19an, Udal Pilotalekuan, 22:00etan.

MUSIKA

BERGARA

► **Backyard babies, Danko Jones eta Tyla** gaur, Jam aretoan, 22:00etan.
► **Elgoibarko Udal Musika Bandaren** kontzertua domekan, urriaren 21ean, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.
► **Orfeon Pamplones** abesbatzaren emanaldia datorren zapatuan, hilaren 27an, San Pedro parrokian, 20:00etan.
► **Gor gaua** datorren zapatuan, hilaren 17an, Jam aretoan, 21:00etan: King Putreak, Leihotikan, Ken 7, Berr Txarrak, Txapel punk, Jousilouli eta Buitraker.
► **Saxon** eta gonbidatutako beste talde bat datorren domekan, hilaren 28an, Jam aretoan, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Pintura ikastaroko**en margolan erakusketa zapatuan eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era.

ARRASATE

► **Teresa Díazen** pastel-pinturen erakusketa Harresi aretoan, urriaren 28ra arte.
► **Argazki lehiaketako** lanak urriaren 19tik 31ra Monterronen.

BERGARA

► **Jesus Elortzaren** margolan erakusketa kultura etxean, urriaren

21era arte.

► **Mugen gainetik.** El Salvadorko lurrikarei buruzko argazki erakusketa urriaren 23tik azaroaren 4ra, kultura etxean.
► **Mari Karmen Lópezen** olioak Nahikari tabernan.
► **Jose Antonio Laskurainen** margolanak La Caixako bulegoan.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Jokin Zaitegi itzulpen laburren XV. sariketa.** Aurtengo gaia *Energia iturriak XXI. mendean* izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Jatorrizko testuen lehen argitalpena 1998, 1999, 2000 edo 2001. urteetan argitaratua egon behar da, eta internetetik hartutako testuen antzinatasuna ere egiaztatu beharko da. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28 telefonoan.

BERGARA

► **Argazki rallya** domekan, urriaren 21ean. Edozein afizionatuk parte har dezake. Antolatzaileek emango dizkiete argazki-filmak partaideei, 1.500 pezetaren truke. Jorratu beharreko gaiak izena ematerakoan jakinaraziko dituzte. Izena ematea domekan bertan egingo da, Pol-Pol Argazki Taldearen egoitzan (Zabalotegi 5), 08:30etik 09:30era. Argazki-filmak 14:00etan entregatu beharko dira, toki berean. Irabazleak 10.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu, eta beste hainbat sari ere izango dira. Proiekzioa eta sari banaketa azaroaren 16an izango dira. Edozein argibidetarako, deitu 943 76 46 41 (Jose) telefono zentralera.
► **XI. Kirol argazki lehiaketa.** Euskal Herriko edozein afizionatuk parte hartu ahal izango du, eta zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira, mota bakoitzeko lau argazki, gehienez. Kategoria bakoitzeko onenak 25.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu. Beste hainbat sari ere banatuko dituzte. Lanak entregatzeko epea urriaren 24an bukatuko da. Argibideak: 943 76 30 90.

EIBAR

► **Juan San Martin beka.** Ikerketa esparruak: antropologia, hizkuntzalari-tza, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea. Bekaren zenbatekoa: 1.500.000 pezeta. Eskaearak eta agiriak aurkezteko epea urriaren 23ra arte. Argibideak Eibarko Udaletxean, 943 20 68 45 zenbakian.

DONOSTIA

► **Komiki ez sexisten lehiaketa,** Donostiako Udaleko emakumearen bulegoak deituta. Sari bakarra emango dute, 150.000 pezetakoa. Lanak aurkezteko epea azaroaren 22an amaituko da. Argibideak: 943 48 14 13.

LASARTE-ORIA

► **Gazteak eta euskara ikertzeko beka.** Beka horren helburua da Lasarte-Oriako gazteek euskararen gainean dituzten jarreraren diagnostia egitea. Lana egiteko 12 hilabete izango dira, eta bekaren zenbatekoa 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro). Proiektua eta gainerako agiriak aurkezteko epea urriaren 31ra arte

egongo da zabalik. 943 37 60 55.

BILBO

► **Gabriel Aresti XIX.** Ipuin Lehiaketa. Ipuinak, gehienez, DIN A-4 motako 15 orrikoak izango dira, orrialde bakarretik eta tarte bikoitzean idatzita. Ipuinak euskaraz edo gaztelaniaz idatzi ahal izango dira, eta ez da onartuko beste hizkuntzetatik egindako itzulpenik. 550.000 pezeta gordineko sari bana eta 225.000 pezeta gordineko bina akzesit emango dituzte euskarazko eta gaztelaniazko modalitateetan. Lanak helbide honetan aurkeztu beharko dira: Bilboko Udala. Kultura eta Turismo Saila. Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa. Ernesto Erkoreka plaza z/g. 48007. Bilbo. Ipuinak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da.

IKASTAROAK

ANTZUOLA


► **Umeei ipuinak nola kontatu.** Azaroaren 17an, 24an eta abenduaren 15ean, 10:00etatik 13:30era. Erakuslea: Virginia Imaz, Oihulari Klown taldeko partaidea. Izena ematea (3.000 pezeta) urriaren 31ra arte zabalik. Argibideak: 943 76 62 46.
► **Grafologia ikastaroa** Udaletxean azaroaren 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean eta 15ean, 10:00etatik 12:00etara, Iruñe Ibarraren eskutik. Izena emateko epea urriaren 31n amaitzen da. Argibideak: 943 76 62 46.

ARETXABAETA

► **Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi aldiz batuko dira, zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.
► **Eskulan ikastaroa.** Argibideak eta izena ematea kultura etxean, 943 71 10 27 zenbakian.
► **Yogako hasiera ikastaroa.** Eguztinetan eta egubakoitzean 10:00etan, edo martitzenetan eta eguenetan 20:30ean. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

ARRASATE

► **Psikogeriatría ikastaroa:** zahartzaroko dementsia eta Alzheimer gaixotasuna. Azaroaren 12, 13, 14, 15 eta 16an, 15:15etik 18:15era. Izena ematea eta argibideak ICTE delakoan, 943 77 16 99 edo 943 77 17 15 zenbakietan.
► **Yogako hasiera ikastaroa,** Arrasate Yoga elkarteak antolatuta. Argibideak: 943 79 35 76.
► **Antzerki tailerra** urriaren 20tik urtarrilaren 26ra, zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28 zenbakian.
► **Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguztinetan, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.
► **Gazte ikastaroak:** euskal dantzak, bio-dantza eta argazkigintza. Izena



► MUSIKA

BACKYARD BABIES TALDEA JAM ARETOAN

Rock-and-rolla jotzen duen talde suediarra bigarren aldiz izango da Jam aretoan. Aurrekoan, *Total 13* diskoa aurkezttera etorri ziren, eta kontzertu gogoangarria eskaini zuten orduan. Oraingoan, berriz, *Making enemies is goog* azken diskoko abestiak joko dituzte. Suediarrek AC/DC taldearekin jira egin zuten joan den urteko udazkenean, eta zuzeneko emanaldietan duten indarra argi eta garbi erakutsi zuten. Taldearen jarraitzaileek eta musika kritikoei harrera beroa eskaini zieten suediarren hirugarren diskoari. Gaurko kontzertuan, Kanadako Danko Jones punk-rock taldea eta Tyla izango dira hasierako taldeak.

Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** Egubakoitzean, urriaren 19an. **Ordua:** 22:00. **Prezioa:** 2.800 pezeta txarteldegian.

AIPAGARRI

Martin Garitano

BERGARA

Mugalari 01. La vuelta al mundo en 80 dias liburua argitaratu berri dute Martin Garitano eta Fermin Munarriz kazetariak. Bilbon hasi eta Pasaian bukatu arte; 11 aste eta erdian, mundua aldenik alde zeharkatu zuten. Egunez egun, euren gorabeheren berri eman ziguten *Gara* egunkarian. Bildutako materiala liburu dotorean jaso dute, argazki ugariz eta testu laburrez.



Kaitin Allende

MONDRAGOE

Izatez audioarra da, baina urteetan Mondragoen bizi eta lan egin du. Hain justu, *Arrasate Pressen* eta *Arrasate Irratian* jardun zuen komertzial eta kazetari lanetan. Euskadi Irratian eta ETBn ere ibilia da.

Orain, *Sorginen Laratza* saioan ikus dezakegu, Martxelo Sotes eta Xabier Euzkitzerekin batera eguneko albisteak komentatzen.



Iraitz Agirre

MONDRAGOE

Literatura zale amorratua dugu eta idazteko erraztasun handia dauka. Hainbat literatura sari irabazi ditu. Orain dela gutxi, Urruzuno irabazi zuen. Orain, berriz, Resurreccion Maria Azkue literatura lehiaketa irabazitako hainbat lanekin batera, 'Oraindik' bere ipuina argitaratu berri dute; izan ere, saririk eman ez zioten arren, aipamen berezia egin zion epaimahaia Iraitzen ipuin horri.

JAIOTAKOAK

Maddi Igarza De Lucas. Bergaran, urriaren 4an.
Jennifer Caballero García. Bergaran, urriaren 4an.
Iñigo Pérez Erle. Oñatin, urriaren 5ean.
Miren Altuna Belinchón. Arrasaten, urriaren 6an.
Irati Telleria Sanz. Oñatin, urriaren 8an.
Alazne Delgado Arriola. Arrasaten, urriaren 11n.
Oihana Arana Cardenal. Eskoriatzan, urriaren 12an.
Haizea Arana Cardenal. Eskoriatzan, urriaren 12an.
Arrate Serrano Otadui. Eskoriatzan, urriaren 13an.
Ane Arregi Hernández. Arrasaten, urriaren 13an.
Jon Cid Camarzana. Arrasaten, urriaren 14an.

HILDAKOAK

Cristina Aranburu Gallastegi. Bergaran, urriaren 10ean. 86 urte.
Eustaquia Garitano Lizarralde. Bergaran, urriaren 12an. 96 urte.
Genoveva Odriozola Bergara. Oñatin, urriaren 14an. 68 urte.
Mª Pilar Elkorobarrutia Urien. Bergaran, urriaren 16an. 77 urte.

EZKONDUAK

Javier Sánchez Sánchez eta **Maria Angeles Vázquez Hermida.** Bergaran, urriaren 12an.
Emilio Vinuesa Familiar eta **Maria Jesús Vicente Sancho.** Bergaran, urriaren 12an.
Pablo Fonseca Blanco eta **Margarita González Sevillano.** Bergaran, urriaren 13an.

ESKER ONA

Cristina Aranburu Gallastegi

Bergaran hil zen 2001eko urriaren 10ean, 86 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Manuel Beristain Ruiz

Manuel Beristain Ruizen sendiak, eskerrak eman nahi dizkizue, bere azken agurrera gerturatutako guztiei eta guri emandako laguntzagatik. Esker mila guztioi.



URTEURRENA

Luciano Altuna Osoro

"Pleitos"

Lehen urteurreneko meza domekan, urriak 21, 12:30ean, **Bergarako San Pedron.**




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mari Cruz Narbaiza Azkarate-Askasua

Lehen urteurreneko meza domekan, urriak 21, 12:30ean, **Bergarako San Pedron.**



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Ibon Muniategiandikoetxea Larrañaga eta **Cristina** ama. Ibon urriaren 10ean jaio zen, eta 3,500 kilo pisatu zuen. **Julian** da aita, bergararra hura ere.




Mikel Fernández Ledesma eta **Bego** ama, atxabaltarrak biak. Urriaren 11n jaio zen Mikel, eta 3,500 kilo pisatu zuen. **Jabi** da aita, mondragoetarra.



Oier Terrazas Reglero eta **Rebe-ka** ama, bergararrak biak. Oier urriaren 13an jaio zen, eta 3,970 kilo pisatu zuen. **Felix** da aita, mondragoetarra.



Arrate Serrano Otadui eskoriatzarra eta **Gema** ama, mondragoetarra. Arrate urriaren 13an jaio zen, eta 2,900 kilo pisatu zuen. **Salba** da aita, eskoriatzarra.




Gema Bikuña eta **Aitor Barrena** txantxikuarrak datorren zapatuan, urriaren 27an, ezkonduko dira Santa Lutzia ermitan. Honako argazki hau ekarri digute euren koadrilako lagunek, eta horrela zoriondu nahi izan dute bikotea. Zorionak, bada, eta ondo-ondo pasa ezazue, koadrila osaren partetik!





Benita Martín mondragoetarra eta **Iñaki Arantzabal** bergararra 1976ko urriaren 23an ezkondu ziren Arrasaten. Horra hor bikotea, egun hartan ateratako argazkian. Orain, ezkondu zireneko 25. urteurrena betetzen denean, senitarteko afari batekin ospatuko dute urteurren hori Benitak eta Iñakik. Zorionak, Nekaneren eta Iñakiren partetik!

HITZGEZIDUNAK

Luma		Atzeko jokalaria		Hotsak		Har ezan!
		Oheratu		Kausa partikula		
		Huts				
		Iratzea				
Bahitzen duena	Gipuzkoan, gara					Akitaniako biztanle
Deitura	Zenbaki bakoiti					
Ibarrak						
Izena						
				Modu atzikia		
				Garai		
Tona	Gipuzkoako herria				Kontso- nantea	
Gabezia	Mesedez!				Prezipita- zio mota	
		Bihia				
		Interjek- zioa				
Ardi, hitz elkarketan			Noka, da			
Prezipita- zio mota			Masuria			
Gurdi mota				Kasik		
Izaera				Kontso- nantea		
				Gehiegi		

BILABILATZ



UMOREGIROAN/ David Peñalver



EDAN ETA EDAN

Sartu da tipo bat Osintxuko taberna baten, eta lau ardu edan ostian:

- Kamarero hiru ardu...
- Horrek be edan ostian, bi ardu eskatu dittu. Halako baten...
- Hi, kooonturatu haiz?, zenbat.....eeta gutxiago edan, lafffiada haundixaua hartzen juat!

ONAK ETA TXARRAK

Kaxintok ezin zeban herriko apaiza begixen aurrian ikusi eta egun baten apaizak esan dotsa:

- Hi, Kaxinto, pertsonak, liburuak moduan, onak eta txarrak apreziatzen jakin bihar dok.
- Ba, hik be, perretxikuak jate-

rako orduan onak eta txarrak jan itzak.

ARGALDU

Juntatu die eskolako bi lagun kalien:

- Jesus, Mari Paz, zenbat argaldu dozun!
- Bai, dana txupatzen daben konpresa horretako bat jarri naban eta...

HIRU PIZZA!

Sartu da tipo bat pizzerixa baten bi eskutan neska banakin, eta esan dotsa tabernarixai:

- Hi, etara itzak hiru pizza!
- Zer, familiarrak?
- Ke ba! putak dittuk baina gosia jauke...

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




Zein monumentu ez dago Debagoienean?

Hona hemen monumentu izendatuta dauden 4 etxe: Olaso Torrea, Otalora jauregia, Antxieta etxea, Monterron jauregia. Lau horietako zein ez da Debagoienekoa?

- Olaso Torrea
- Otalora Jauregia
- Antxieta etxea
- Monterron jauregia

Otalora, Arexabaleta eta Monterron, Arrasaten.
Erantzun zuzena: Antxieta etxea Azpeltian dago; Olaso, Bergaran.

SOLUZIOAK



S	E	N	E	S
R	L	A	N	A
A	•	•	•	•
V	•	A	R	•
I	R	I	M	I
N	D	•	T	•
A	V	A	L	E
T	•	A	V	Z
I	•	A	I	•
K	•	R	O	•
V	N	A	R	•
A	N	A	R	•
V	A	B	A	•
•	A	R	E	•
O	•	Z	E	•
N	A	Z	E	•
•	Z	•	A	•

DENBORA-PASA /21

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Osasun arazoek bizimodua aldaraziko dizute. Beharrez, zure kontura lan egitea gurako zenuke, baina oraingoz ezinezkoa denez, aurrezten ibiliko zara aukera eduki arte.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Eztabaidak anai-arreben artean, ustiatu barik dauden familiaren lur eremu batzuk direla eta. Eztabaidak beharrezko nagusiekin, zure irizpideak inposatzen ahaleginduko zarela. Oraingoz bete euren esanak, laster konturatuko dira eta zuk arrazoi zenuela.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Asmo batzuk atzeratu egingo dira, zure kideek ez dutelako euren betebeharrak egin, eta ondorioz aldatzeko egin beharko dituzu. Edozelan ere, ez azaldu inori zure asmoak, bekaitza dela eta batzuek kopiatuko dizkizute eta.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Larregizko beharrak eragina izango du zure osasunean, eta urdaileko arazoak ekarriko dizkizu. Familiak zure beharra igarriko du. Egin berba eurekin eta azal diezazue pazientzia eduki behar dutela.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Bakarrik ibiltzeko zure joerak arazoak ekar diezazkizuke ingurukoekin. Kontuan hartu kideak zure asmoak gauzatzekoan. Hartu bitaminak, normalean baino ahulago ibiliko zara eta.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Lehendik egindako inbertsioek emaitza onak izango dituzte diru aldetik. Ohi baino biziago ibiliko zara, eta pentsatzen duzun edozer egiteko indarra edukiko duzu. Aprobetxatu bolada on hauxe.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Utzi gauzak argi eta saihestu gaizki-uleratuak, bestela, beharrezko egitasmo garrantzitsu bat pikutara joan daiteke, eta horrek kalte egingo dizu diru aldetik. Zure gustukoak izan ez arren derrigorrez onartu beharko dituzun aldatetako beharrez.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Anai-arrebaren batek laguntza eskatuko dizu, lur jota dabil eta. Ez da inbertsioetarako bolada ona. Indarrez gainekia zaudenez, zenbait gauzatan batera arituko zara.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Behar batzuk erabat gelditu egoteak lur jota utziko zaitu. Jarrera baikorragoa izan behar duzu gauzak hobeto egiteko. Kontuz suarekin.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Sexu berekoak bekaitzak jota ibiliko dira beste sexukoekin artean daukazu arakastagatik. Osasun aldetik, kontuz, indar larregiz jokatzeko istripuak ekar diezazkizute eta.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Zure bizimodua anabasa hutsa da, eta bada aldatzen hasteko garaia. Hasi beharrezkin, diru aldetik ez zabilta oso ondo eta, baina lasai, hori laster hobetuko da eta.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Kontratuetan sinatzeko eta beharrezko taldeak sortzeko aste ona. Zure bikotearekin duzun harremana sendotu egingo da. Atseginerako eta atsedenerako bidaia. Gozatu bolada on honetaz.



Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

TELEBEGI

Patxiiii!

Telebistari buruzko orrixan idatzi arren, ez dot telebistarik ikusten.

Kuriosua ezta? Kontua da ez daukatela telebistarik etxian, eta horri esker, edo hori dala eta, ez ditudat ikusten munduan eta ez hain urrin, pasatzen dien gauzak.

Joan zan hilleko irudi ikusgarrienak, ordia, ikusi nittuan, lasai! Lanian nenguan eta lankide batekin beheko tabernara jaitsi giñan telebista ikustera. Hala ta be, aspaldixan askotan pasatzen jaten gauza bat kontatuko dotsuet: hainbat eztabaidetatik kanpo geldittu naiz telebistatik ez ikustearren. Bai, bai, entzuten dozuena! Harrigarria da zenbat aldiz izaten dogun telebista hizpide berriketan egitten dogunian. Eta ez deizuela pentsatu berriketaldi horretan gertakari garrantzitsuren bati buruz aritzen garenik. Ezta gutxiagorik ere. Ahoz aho ibiltzen dien kontuak iragarkixetan agertzen dienak die. Kexa asko entzuten da: telebista kate danek programaziñua iragarki tartiekin betetzen dabela eta pelikula zatixa baiño luziagua izaten dala iragarkixen tartia, eta zeozer iragarri barik aspaldixan ez dabela ezer eskaintzen, eta pribatu zein publiko, berdin dala danetan iragarkixak geroz eta gehixago dielako...

Berdin da! Moda-modan darenak iragarkixak die. Hala oindio ez doze Patxi ezagutzen? Nik ez dakit zein dan Patxi hori, baiña parian ez dotelako topau izengo da! Kalera irteten dotenian ibiltzen naiz tabernetako telebisiñuei begira, baiña oindio ez dogu kointzididu Patxi eta bixok.

Dana dala, ikusten dotenian segiduan jakingo dot zein dan ze, honezkero, hiru pertsonak kontau doste txistioi! Eskerrak neuk nahi dotenian telebisiñorik ezin doten ikusi, bestela, akaso, neu ibilliko nintzake Patxika egun osuan.



MARIJO DEOGRACIAS

Xeleberri

Martitzenean, 20:30ean

Afari ederra zuretako

Oraingo astean, lanari ekin diote berriro ere Goiena Telebistako erreportari xelebrenek. Jaiak alde batera utzi eta albiste xelebreak kalera atera dituzte.

Datorren astean, bestalde, *Xeleberri* saioak lehia-keta jarriko du abian. Oraingo honetan, Bergarako Torrekua jatetxean bi lagunendako afari eder bat zozketa-tuko dute. Lehiaketan parte hartzea oso erraza da: martitzenean, arratsaldeko 20:30ean, *Xeleberri* saioa ikusi eta galderari erantzun, betiko moduan, 943 71 23 93 telefonon. Zozketa hilaren azken martitzenean egingo da. Animatu eta zorte on!

Iparrorratza

Martitzenean, 22:00etan

Oraingo astean, Peru

Pakistan eta Kanada bisitatu ditugu dagoeneko *Iparrorratza* saioan. Baina oraindik muga ugari igarotzea falta zaigu Julen Arangurenen laguntzarekin. Oraingo astean, Peru bisitatzeko aukera izango dugu ofatiaz baten eskutik. Iñaki Saiz pasa den udan hango bizimodua ezagutzeko aukera izan zuen, eta oraingoan, hark azalduko digu hantzi bizi izandakoa. Guaraz, Cuzco eta Machupicchu izango dira, batez ere, egingo ditugu geldiuneak.

Adi, beraz, martitzenean, gaueko 22:00etatik aurrera, Julenekin eta Mikelekin duzu-eta hitzordua.

Sarean

Eguaztenean, 20:30ean

Internet ardatz

Oraingo eguaztenean, saio berri bat estreinatuko dugu: *Sarean*. Iaz, martitzenero interneti tarte berezi bat eskaintzen genion gure albistegian, eta aurten, ordu erdi iraungo duen saio bat eskaini gura izan diogu interneti. Besteak beste, erreportajeak, hiztegia, bitxikeriak, elkarrizketak eta hainbat webgune proposatzeko tarteak izango dira saioan.

Aurkezpen lanetan Lore Martínez atxabaltarra izango dugu. Telebistan izango duen lehen esperientzia izango da Lorrendakoa, baina hori bai, ilusio handiz. Hor-taz, eguaztenean duzue Lorerekin hitzordua.



Asteko programazioa / Urria 19-25

EGUBAKOITZA 19	ZAPATUA 20	DOMEKA 21	ASTELEHENA 22	MARTITZENA 23	EGUAZTENA 24	EGUENA 25
14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Sarrera doan 15:15 Berriak 15:30 Soinuz blai 20:00 Berriak 20:30 Astebete GOIENKARIA berria izango da saioaren ardatza. 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak 22:00 Soinuz blai	14:00 Asteburuko tartea Gatza eta berakatza Xeleberri Iparrorratza Kanadaraino bidaia egingo dugu saio honetan. Goibegirada Euroaren gainean jardungo dute, Mikel Irizarren gidaritzapean. Sarrera doan Soinuz Blai Astebete	14:00 Asteburuko tartea Gatza eta berakatza Xeleberri Iparrorratza Kanadaraino bidaia egingo dugu saio honetan. Goibegirada Euroaren gainean jardungo dute, Mikel Irizarren gidaritzapean. Sarrera doan Soinuz Blai Astebete	14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Astebete 15:15 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Goienasport Asteburuan gure kirol taldeek jokatu-tako partiduen errepaso zabala. 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak	14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Goienasport 15:15 Berriak 20:00 Berriak 20:30 Xeleberri 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak 22:00 Iparrorratza Mikel Saizek Perura egindako bidaia kontatuko digu.	14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Xeleberri 15:15 Berriak 15:30 Iparrorratza 20:00 Berriak 20:30 Sarean Interneten gainean saio berria estreinatuko dugu. 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak 22:00 Soinuz blai	14:00 Berriak 14:15 Gatza eta berakatza 14:30 Sarean 15:15 Berriak 15:30 Soinuz blai 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:15 Gatza eta berakatza 21:30 Berriak 22:00 Soinuz blai Ugutx Usandizagak aurkeztutako bideo-klipak.

BARRUKOKONTUAK

Aurpegi berria

Astehenean, *Goienasport* saioak aurtengo ibilbideari hasiera eman zion, eta nobedadeen artean, aurkezlea bera. Julen Iriondo kazetaria izango da kirol saioko aurkezlea. Julenek, 22 urte baino ez dituen arren, esperientzia handia du kirol kazetaritzan; aurrez ETBn eta *Gara* egunkarian aritu izan da. Julenek adierazi duenez, izugarri gustatzen saio kirola, eta kameran aurrean jartzen den lehen aldia izan arren, erronka polita izango da berarendako.

Ikurra martxan

Goiena Telebistak digitalizazioa-ko apustu sendoa egin du aurten. GOITBk bereganatu dituen aparailu digitalen artean dugu ikur sortzailea. Aparailu horren bitartez, GOITBk ikurra izango du, eta beste kateetan ikustera ohituta gauden logoa izango du gure telebistak ere.

Identifikaziorako ikur hori datorren astetik aurrera jarriko dugu abian Goiena Telebistan. Goiena Telebistaren logotipoa Goio Arana diseinatzaile mondragoetarrak egin du.

KAMERAURREAN



"Momentu txarrak pasatzen direnean, jende gutxi egoten da zurekin"

Markel Irizar / Txirindularia
'GOIENASPORT' (2001-10-15)



"Hain zaila denez, ikas dezagun lehenbailehen euroa erabiltzen"

Jose Luis Iñurrategi / Foru Aldundia
'GOIBEGIRADA' (2001-10-17)



6 aire-poltsa
Zenbaki hutsa baino, konfiantza kontua da.

Zein punturaino fida zaitezke auto batekin? Puntu goreneraino. Gehitu egin dugu, baita irabazi ere. Sei aire-poltsez (aurrean 2 adimendun; alboetan 2; eta sabaian 2, aurreko eta atzeko bidaiariendako gortina antzekoak) eta ABSz gain, zure eskura jartzen ditugu segurtasunerako hainbat elementu moderno: EVA (larrialdiko balaztatzeari asistentzia); REF (balaztatzearen banaketa elektronikoa); ECS (lesio zerbikalak ekiditeko babes sistema); istripua gertatuz gero, hankak babesteko sistema eta direkzioak gidariari kalterik ez egiteko sistema; eta ESP (egonkortasunaren kontrol dinamikoa). Xehetasun guztiak eta kontrol osoa.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/1.906.05 eurotik). Diesela HDi 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA



ETORMOBIL	EKOMOBIL	OÑATI GARAJEA
Otaola etorbidea, 22 943 20 09 66 943 20 09 96 EIBAR	Zaldispe auzoa, z/g 943 79 50 71 943 79 97 12 ARRASATE	Goribar auzoa, 9 943 78 13 50 OÑATI

307 
PEUGEOT

KOITOAREN ONDOREN, HAURDUNALDIA EKIDITEKO METODO ANTIKONTZEPTIBOAK

“HURRENGO EGUNEKO PILULA”

1/ GIZARTE IKUSPEGIA

Iruñeko Andrea emakume taldea

TOKIA: Arrasateko Udaleko Pleno aretoan
DATA: 2001eko urriaren 24an (eguztzena)
ORDUA: Arratsaldeko 18:30ean

2/ MEDIKUNTZA ETA GINEKOLOGIA IKUSPEGIA

Alfredo Otalora Ginekologia Kontsultorioa

TOKIA: Arrasateko Udaleko Pleno aretoan
DATA: 2001eko azaroaren 8an (eguna)
ORDUA: Arratsaldeko 18:30ean

3/ SEXOLOGIA IKUSPEGIA

Agurtzane Ormaza, sexologoa

TOKIA: Arrasateko Udaleko Pleno aretoan
DATA: 2001eko azaroaren 15ean (eguna)
ORDUA: Arratsaldeko 18:30ean



ARRASATEKO UDALA

Sexologia Zerbitzua ■



Atzeskua

MAIDER OSA

Ainhoa Agirreazaldegia/ Bertsolaria

Bergararra ala elgetarra?
Nire dudak ditut. 9 urte nituela

Elgetatik Bergarara joan ginen, eta oinarriak hor daude. Bizitzaren zatirik handiena Bergaran egin dut, baina azken aldian sustraia-tara gehiago jotzen dut.

Bertsolaritzaren booma itzali da dagoeneko?

Aparra jaitzi da, eta ondorioz egonkortu. Garai baten modako kontua zen, eta bertsozaleak ez ziren asko joaten ziren bertso saioetara. Horiek urrutiratu egin dira, baina txanpainaren konparaketa eginez, aparra kendu eta txanpaina non dagoen ikusi da.

Bertso trama, bertso pilota... zerekin gehiago uztartuko da bertsolaritza?

Bertsolaritzan bi gauza dira beharrezkoak: batetik, bertsolaritza jatorriz dena. Hau da, komunikatzeko tresna, hitzen bidezko jolasa, adarra jotzeko bidea... Formatoari dagokionez, berriz, gizarteak aurrera egiten duen eran bertsolaritzan ere bide berriak jorratuko dira, baina oinarria beti bera da.

Igual bertsoak alemanez botatzen ikusiko zaiztugu.

Ni bertsolaritzara zerbaitek lotzen banau, hori euskara da. Oraindik alemana ez dut ezagutzen hainbeste maitatzeko adina. Dena dela, nik erdal hizkuntzeta-ko inprobisatzaileak asko maite ditut.

Laster izango dugu Euskal Herriko bertsolari txapelketa. Joango zara?

Bai. Nire lehenengo txapelketa nagusia da, eta daukaguna emango dugu. Azaroaren 3an kantatuko dut, Lesakan.

Noren buruan bukatuko du aurtengo txapelak?

Izen bat nabarmentzen bada, hori Andoni Egañarena da. Sorpresak egongo dira, eta izen berriren bat sartzeko aukera ere egongo. Hori nor izango den? Txapelketan ikusiko da.

Dena dela, zuk ere badakizu zer den txapela janztea.

Bai, baina orain arteko txapelketak ezin dira txapelketa nagusiarekin parekatu.

Ez nago txapelketa nagusian txapelaren bila joateko momentu baten. Orain arte gazteen mailan ibili naiz, eta Gipuzkoako txapelketa-rik ere ez dut jokatu.

Zer behar da bertsolaria izateko?

Gogoia behintzat, bai, eta konstantzia ere bai. Suerteak ere izango du zeri-kusirik, eta bertsoa maitatzea ere ezinbestekoa da.

Bertsolariok ez zarete "gaizkileak", baina kartzelari beldurra diozue.

Mitifikatu egiten da hori kanpotik. Kartzelan egiten den ariketan 3 bertso epaitzen dira, eta zortziko nagusian eta txikian ere beste hiruna kantatzen dira.

Bukatzeko, Ainhoa, puntu bat: Zarautz nahia go duzu/zuk Bergara baino?

Hori ez da horrela. Donostian lanean ari naizela tokatu zait Zarautzen bizitzea, eta Bergaratik baino gertuago dudalako.



“Bertsolaritzaren aparra jaitzi egin da, eta ondorioz egonkortu”

“Ez nago txapelketa nagusian txapelaren bila joateko momentu baten”

“Gizarteak aurrera egiten duen eran bertsolaritzan ere bide berriak jorratuko dira”

► Elgetarra / 23 urte / bertsolaria

PIPERMINA

Astero

Kazeta hau berri-
egin da. Ez da
urtebete jaio zela,
Debagoieneko herri
aldizkariak bateratzen
laguntzeko. Eta gaurkoarekin
gauzatu da orduko asmoa.
Berri nagusia edizioetan
dago, baina atal komuna ere
egokitu egin da. Besteak
beste, zutabe hau sortu da, eta
niri eman didate lehen
txanpako erantzukizuna.
Astero.

Astero idatziko ditut, beraz, mila eta hirurehun karaktere. Gai librean, jartzaierik gabe. Ez dakit zenbateraino asmatuko dudana. Badakit, ordea, asmatzen dudana neurrian irakurriko dela zutabea.

Lan hau baliagarri izatea nahi nuke. Baliagarri debagoienarren iritziak gorpuzten laguntzeko, gaien alde gordea non legokeen hausnartzeko, giza-talde egiten gaituena suspertzeko, eskualdearen egituraketa bultzatzeko.

Ez nuke, baina, tuttologo bihurtu nahi. Orojakileek edozertaz idazten dute ezer askorik jakin gabe, eta asteroko zutabe handia da tentazioa. Zuen egurra espero dut harrotzen naizenean. Helbidea: iritzia@goiena.com

Goienkaria guztion plaza izango da, eta zutabe hau nire taldea. Gai, datu edo iritzirik bidali nahi badidazue, egurrerako helbide berean jasoko ditut, eta kontuan hartuko. Hala ere, erantzukizuna nirea izango da, ez beste inorena. Bizitzaren lapikoa bor-bor ari da, eta piper kizitxo batek gustagarriago egin lezake. Datorren astera arte.

MIKEL IRIZAR

Tindategia



DEBAGOIENEAN:
Enpresak, jatetxeak, gremioak, lantegiak,...

LABANDEGI INDUSTRIALA:

Oñatin

Orain, askoz ere gertuago!

TINDATEGIA: Bidebarrieta, 7 behea • Tel./Faxe: 943 78 19 48 OÑATI
LABANDEGIA: Berezao industrialdea, 13 • Tel.: 943 71 70 16 OÑATI

Labandegia

